

**../... LEGEA, .....AREN ....(E)KOA, LURZORUAREN KUTSADURA EKIDIN ETA  
ZUZENTZEKOA.****(AURRETIKO ONESPENA. 2012/02/10EKO BERTSIOA)****ZIOEN AZALPENA**

Lurzorua, gizateriaren bizi-iturririk estimagarrienetako bat, funtsezko elementua da, eta pertsonen jarduera gehien euskarria da. Baliabide horren funtzio-aniztasunaren eta eskuragarritasun mugatuaren ondorio garrantzitsuetako bat –eta lurzorua andeatuta egotearen zergati nagusietako bat– lurzoru-erabileren arteko lehia gero eta handiagoa da.

Hainbat urtez desegokiro erabili eta lehen alarma-zantzuak agertu ondoren, beharrezkoa izan zen zenbait mekanismo abian jartzea, berriztagarria ez den bizi-iturri urri hori arriskuan jarri gabe modu jasangarrian erabili ahal izateko. Izan ere, gero eta kaltetuago dago, jarduera antropikoagatik; jarduera horrek hautsi egiten ditu lurzoruaren ezaugarri fisikoak, kimikoak eta biologikoak, eta batzuetan eraldaketa larriak eragitera iristen da.

Kalteak ekidin eta konpondu ahal izateko irtenbideak bilatzeko, eta arazoa hurrengo belaunaldiei uztea eragozteko, Eusko Legebiltzarrak lurzoria ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea onartu zuen.

Lurzoruaren kalitatearen arloan partikularrek eta herri-administrazioek egin beharreko ekintzei legezko estaldura ematea zen legearen xedea, lurzoria babesteko Euskal Autonomia Erkidegoan diseinatutako politikaren oinarri diren hiru helburuak lortzeko: hau da, lurzoruaren eraldaketa berriak agertzea ekidin, kasurik premiazkoenak konpondu, eta, azkenik, kutsatutako lurzoru gisa oinordetzan hartutako pasiboa epe ertain eta luzera konpontzeko plangintza egin.

Lurzoruaren kalitatea babestearen arloan aurrerapen handiak lortu arren –bereziki, bizi-iturri hori babestearen aldagaia partikularren eta oro har herri-administrazioen ekintzetan sartzean–, otsailaren 4ko 1/2005 Legearen aplikazio praktikoa agerian utzi ditu legea aldatzea beharrezkoa dela erakusten duten arazoak. Aldaketaren xedea hau da: arauaren helburua, hots, lurzoria babestea eta lurzoruaren kutsadura zuzentzea, bereziki suposiziorik garrantzitsuenetan oinarritzea, lurzoria kutsa dezaketen jarduerak eta instalazioak egin dezaketen kaltearen arabera.

Legea parametro bikoitz baten arabera aldatzean datza xedea: batetik, administrazioaren esku-hartzea murriztea, sinplifikazio administratiboa eta beharrezkoa ez denean tutoretzarik ez izatearen printzipioa; eta bestetik, ingurumen-estandarrak hertsiki mantentzea, aldaketak estandarrak inola ere urritu gabe.

Bestalde, hondakinen eta kutsatutako lurzoruen uztailaren 28ko 22/2011 Legea onartzean ere, gomendagarri bihurtu da otsailaren 4ko 1/2005 Legean jasotako zenbait gai moldatzea: hala nola, kutsatutako eta eraldatutako lurzoruak oneratzeko neurriak hartzea behartuta dauden pertsonak zehaztea.

Gai horiek sartzeak, gainera, legearen egituraren aldaketak egitea komeni dela erakutsi du, arautzen dituen alderdietan sistematikoagoa izatea lortzeko: lurzoruaren kalitatearen arloko tresnak eta prozedurak, ezartzen dituen betebeharrak, lurzoruen politikako tresnak eta zehatzeko araubidea.

Halaber, beharrezkotzat jo da legean araututako prozedurak kudeatzeagatik tasak ezartzea. Eta hori horrela egin da, uste osoa izanik beharrezkoa dela eskatzen dutenei ingurumen-organismoaren esku-hartze administratiboak dituen kostuak ordainaraztea, herri-administrazioen ekintzak gidatu behar dituen izaera publikoa begien bistatik galdu gabe. Administrazioaren beste esparru batzuetan gertatzen denarekin egin den alderaketak berresten du uste hori.

Aldaketa horiengatik guztiengatik izan da gomendagarria, otsailaren 4ko 1/2005 Legea aldatu beharrean, lege-testu berri bat idaztea, aurreko legea osorik ordezkatzeko.

Aurretik azaldutakoari jarraiki, lege honek aurrekoaren xedea mantentzen du, hau da, autonomia-erkidegoko lurzoria babestea eta ekintza antropikoen ondorio den kutsadura ekiditea; orobat, lurralde-esparru horretan dagoeneko kutsatuta eta eraldatuta dauden lurzoruei ezartzekoa den araubidea finkatzen du, ingurumena eta pertsonen osasuna zaintzeko.

Bi dira arauketa berrian sartzen diren berrikuntza nagusiak. Alde batetik, lurzoria kutsa dezaketen jardueren sailkapen bat ezartzen da. Kutsatzeko ahalmenaren arabera egin da sailkapena, eta horren bitartez betebeharrak zehazten dira, arauan xedatutakoaren ondorioetarako: betebeharrak desberdinak eta ahalmen horri hobeto egokituak. Beste alde batetik, lurzoriaren kutsadura ekidin eta zuzentzearen arloko esku-hartze administratiboa bizkortzeko, prozedura bikoitza ezarri da lurzoriaren kalitatearen arloan ere: lurzoriaren kalitatearen adierazpenaren prozedura, proposatutako erabilera lurzorurako egokia den balioesteko xedea duena; eta lurzoriaren erabileraren gaitasuna adierazteko prozedura, industria-erabilerarako soilik den lurzoriaren gaitasuna balioesteko xedea duen prozedura soilagoa dena.

Legearen I. kapituluan, lurzoria kutsa dezaketen jardueren aipatutako sailkapena finkatzen da, eta, lurzoria kutsa dezaketen jardueratzat jotzeko, lurzoria ukituz egiteko baldintza gehitzen da jarduera guztietarako.

Gainera, hondakinen gaian indarrean dagoen araudian eta lurzoriaren kutsadura ekiditeko araudian jasotako xedapenak batera lantzeko, garrantzi berezia hartzen dute lege berriko xedapenak. Berariaz ezartzen da hau: hondakinak uzteko jarduera bat egin den kokalekuetan, zigilatzea nahitaezkoa denean edo zigilatzea aurreikusten denean, zigilatze zuzena onartuz eta itxiera-ondoko aldia hastea erabakiz ingurumen-organismoak emandako ebazpenak lurzoriaren kalitatearen adierazpenaren ondorioak izango ditu, eta, xede horretarako, erabilera bateragarriaren inguruko adierazpena gehituko da. Gainera, arretaren printzipioarekin bat, etxebizitzetarako erabiltzeko mugak ezartzen ditu legearen testuak, hondakinak uzteko jarduerak jasan dituzten kokalekuetarako.

Gainontzean, autonomia-erkidegoko lurzoriaren kalitatearen inguruan, herri-administrazioen jokabidearen eredu diren printzipioei eusten die legeak, eta arlo horretako eskumenen diseinuari ere bai, lurzoriaren kutsadura ekidin eta zuzentzeko politika ezartzeko lehen mailako indar eragile gisa udalerrriak finkatu behar direla kontuan hartuz.

Legearen II. kapituluan, sistematikoki definitzen dira lurzoriaren kalitatea ezagutzeko eta kontrolatzeko beharrezkoak diren tresnak, eta hauek dira: lurzoriaren kalitatearen arloko adierazpen-prozedurak, lurzoriaren egoeraren txostenak, lurzoriaren kalitatearen miaketazko ikerketak eta lurzoriaren kalitatearen ikerketa xeheak. Azken horietan, kasuaren arabera, honako hauek sartuko dira: arriskuen analisiak, aukeren azterketa, oneratzeko planak, gaika hondeatzeko planak edo gelditutako lurzoriaren ikerketak. Alde horretatik, ondoren araua garatzea aurreikusten bada ere, tresna bakoitzak izan behar dituen gutxieneko edukia eta zehaztasun-maila finkatu dira.

Legearen III. kapituluan, lurzoriaren edukitzailerak eta jabe diren pertsona fisikoak edo juridikoak oinarritzko eginkizuntzat jotzen da lurzoria babestea, eta eginkizun hori betetzea legean jasotako betebeharren bidez gauzatuko da. Lege honen ondorio diren diru-betebeharren erantzule solidarioak edo subsidiarioak izango dira ingurumen-erantzukizunaren araudian jasotzen diren subjektuak, araudi horrek ezartzen duen bezala.

Mantendu egiten dira betebeharrak hauek: autonomia-erkidegoko ingurumen-organismoari aldian-aldian txostenak bidaltzea, lege honetako II. eranskinean zerrendatuta dauden eta lurzoria kutsa dezaketen instalazioak zein jarduerak dauden lurzoriaren inguruan; lurzorian gai kutsagarriak egotea saihesteko zein halako gaien eraginak ahal den gutxia gutxitzeko jarritako prebentziozko eta babesteko neurriak hartzea; lurzoriaren edukitzailerak diren pertsona fisikoak edo juridikoak hura oneratzeko eta kontrolatu eta segimendua egiteko neurriak ezartzea, lurzori horren kalitatearen bilakaeraren gaineko zein lurzoriaren kutsadurak edo eraldaketak inguruneetan izandako eraginaren gaineko datuak lortzeko.

Lurzoriaren txostenen inguruan, hau adierazi behar da: industriako isurketen gaineko 2010eko azaroaren 24ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/UE Zuzentarauan ezarritakoaren arabera (kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuak), araudi horren mende dauden jarduerak eskatzen zaizkien txosten horien maiztasunak 5 urtekoa izan behar du.

Aurreko legean tresnak jarri ziren, kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak dituzten edo izan dituzten lurzoruak hartzen dituztenek egoera horren berri izateko. Hala ere, beharrezkoa da, tresna horiek indartzea; horretarako, lurzoru horien erosketa-tituluak inskribatzeari edo lurzoru horien gaineko eskubideak eskualdatzeko beste edozein egintzari uko egitea ezartzen da, eskuratzaileri jakinarazpena eman zaiola behar bezala egiaztatu ezean.

IV. kapituluaren, lurzoruaren kalitatearen adierazpenen eta erabiltzeko gaitasunaren adierazpenen kasuak arautzen dira, eta finkatu egiten da zein kasutan ez den izango beharrezkoa legean araututako prozedurak hastea. Hori ez da oztopo izango administrazioak kontrola eramateko; horri esker jakingo du ingurumen-organoak ekintzak nola egin diren, eta egiaztatu egingo du ekintza horiek lurzoruaren kutsadura ekidin eta zuzentzearen arloko helburuei egokitzen zaizkien.

Legearen V. kapituluaren helburua autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak lurzoruaren kalitatearen adierazpena eta lurzoruaren erabiltzeko gaitasunaren adierazpena egiteko administrazio-prozedurak eratzea da; eta prozedura horietatik salbuetsita daudenak zehaztea, aurreko kapituluaren ezarritakoarekin bat etortzeko.

VI. kapituluaren, lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren ondorioak finkatzen dira, eta “kutsadura edo eraldaketa historikoa” eta “kutsadura edo eraldaketa berria” izenekoak bereizten jarraitzen da. Zehazki, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra ezartzen da bi egoeren arteko mugatzat.

Halaber, kapitulu horretan zehazten dira lurzoruaren oneratzeko neurriak hartu behar dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak, eta erantzukizun hori, lehen-lehenik, lurzoruaren kutsatu dutenei egozten zaie. Hainbat direnean, era solidarioan erantzungo diote betebeharrak horri. Horien ordean, betebeharrak hori lurzoruaren jabeena eta edukitzaileena izango da, hurrenkera horretan.

Lurzoruaren oneratzeko neurriak ezartzean, ez da baztertzen hondakinen gaian indarrean dagoen araudi sektoriala. Kokalekuan detektatu ahal izan diren hondakinak zuzen kendu eta kudeatzeko eskakizuna ekar dezake araudi horrek: bereziki, hondakin arriskutsuen inguruan.

VII. kapituluaren, lurzoruaren politikan herri-administrazioen ardura diren tresnak jasotzen dira, gai horretan haien jardueraren gidari diren printzipioak eraginkor bihurtzeko.

Aipatutako tresnak hauek dira: lurzoruaren kutsa dezaketaren jarduerak zein instalazioak dauden lurzoruaren zerrenda; jarduteko jarraibideak eta lehentasunak finkatuko dituen lurzoruaren plana deritzona; lurzoruaren kalitatearen administrazio-erregistroa, ingurumen-gaietan informazioa lortzeko eskubideaz baliatzeko bidea emango duena; legean xedatutako eginbeharrak betetzera bultzatzeko diru-laguntzak; eta finantzaketa publikorako mekanismoak.

VIII. kapituluaren, lurzoruaren kutsadura ekidin eta zuzentzearen arloko zerbitzuak emateagatiko tasak ezartzen dira. Horrela, tasa bat finkatzen da: bai lurzoruaren kalitatearen arloko prozeduretan eta lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta oneratzeko entitateak baimentzeko prozeduretan ingurumen-organoak egiten dituen jardueretan, eta bai lurzoruaren kalitatearen administrazio-erregistroari egindako kontsultetan.

Legearen IX. kapituluaren, zehapen-araubidea ezartzen da, eta arau-hauste oso larriak, larriak eta arinak bereizten ditu, ingurumenean zein pertsonen osasunean sortzen diren arriskuen edo kalteen arabera. Nolanahi ere, pertsonentzako, beren ondasunentzako edo ingurumenarentzako arrisku edo kalte larriak sortzen direla zehazten da, arriskuen analisian arrisku onartezin bat dagoela ondorioztatzen denean. Halaber, arriskua neurtzeko arriskuen analisia egitea beharrezkoa bada, arriskua dagoela ulertzen da.

Arau-hauste horiek diru-zehapenak eta beste molde batekoak dituzte ondorio, eta lurzoruaren kutsatu duen jardueraren zein instalazioa behin betiko uztea ekar lezakete kasurik larrienetan.

Kapitulu horrek, ezarritako zehapenak bere hartan direla, egindako arau-hausteen ondorioz lurzoruaren eragindako kalteak medeatzera behartzen du, erantzukizuna dutenen kontura.

Lehenengo xedapen iragankorrak lurzoruaren kalitatearen adierazpenen balioa ematen die otsailaren 4ko 1/2005 Legea indarrean jarri aurretik lurzoruaren kalitatearen inguruan egindako ikerketak direla-eta ingurumen-organoak emandako ebazpenei eta ziurtagiriei.

Bestalde, bigarren xedapen iragankorrean xedatzen denez, lege hau indarrean sartu baino lehen lurzoruaren kalitatearen adierazpen-prozedura gisa hasitako prozedurak, lege honen arabera lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpen-prozedura gisa bideratu beharrekoak badira, legearen V. kapituluko hirugarren atalean ezarritakoaren arabera bideratuko dira, hasitako prozeduran behin betiko ebazpena eman ez bada, betiere prozedura hasi duen pertsonak hori eskatzen badu.

Hirugarren xedapen iragankorrean, lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpen-prozeduretan hondeaketa-planak eta egoera-txostenak landu ditzaketen entitateak zehazten dira, eta hondeaketa-planak gainbegiratzeko gaitutako entitateak ere bai, entitateak baimentzeko araubidea eguneratzen den bitartean.

Laugarren xedapen iragankorrean adierazten denez, lurzoruaren zerrenda irailaren 30eko 165/2008 Dekretuaren bidez onartutakoa da; eta bosgarren xedapen iragankorrean zehazten denez, egoeraren txostena lantzeko, “Lurzoruaren egoeraren atariko txostenak lantzeko gida”n ezarritakoari jarraituko zaio.

Xedapen indargabetzaile bakarrak indargabetu egiten du lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea eta lege berrian ezarritakoaren aurka doan xedapen oro.

Amaitzeko, I, II eta III. eranskinetan, honako hauek agertzen dira, hurrenez hurren: lurzorua kutsa dezaketen jardueren eta instalazioen zerrenda, lurzorua kutsa dezaketen jardueren eta instalazioen sailkapena eta ebaluazioko balio adierazleak. Nolanahi ere, bigarren xedapen gehigarriak emanda, aipatutako eranskinak aldatzeko ahalmena du Jaurlaritzak. Lurzorua kutsa dezaketen jardueren eta instalazioen identifikazioa ez da egiten indarrean dagoen Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren arabera (2009ko EJSNa), baizik eta 2003an maila txikiagoko eguneratze bat egin zitzaion 1993ko sailkapenaren arabera (93ko EJSNa, 1. Berrikuspena); izan ere, hori erabiltzen da lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda ezartzen duen eta lurzoruak kutsatuta daudela adierazteko irizpideak eta estandarrak finkatzen dituen urtarilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan.

## **I. KAPITULUA**

### **XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. artikulua.- Legearen xedea.**

Lege honen xedea Euskal Autonomia Erkidegoko lurzorua babestea da, eta jatorri antropikoa duten ekintzen ondorioz lurzoruaren ezaugarri kimikoak eraldatzea ekiditea.

Horretarako, lurralde-esparru horretan dauden kutsatutako eta eraldatutako lurzoruei ezartzekoa den araubide juridikoa finkatzen du, ingurumena eta pertsonen osasuna babesteko. Helburu horrekin, berariazko betebeharrak ezartzen dizkie lurzorua kutsa dezaketen jardueri eta instalazioei, eta lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta oneratzeko ekintzak egiten dituzten entitateak baimentzeko araubidea ere ezartzen du.

#### **2. artikulua.- Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak eta instalazioak.**

1.- Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak eta instalazioak dira: gai arriskutsuak erabiltzeagatik edota hondakinak sortzeagatik lurzorua kutsatzeko aukera handiena dutenak. Jarduera eta instalazio horiek Lege honen I. eranskinean daude zehaztuta; eta, lege honen ondorioetarako kutsatzaileak izateko, beharrezko baldintza da lurzorua ukituz egitea.

2.- Lege honek ezartzen dizkien betebeharren arabera, legearen II. eranskinean, lurzorua kutsa dezaketen jardueren eta instalazioen hiru kategoria finkatzen dira.

#### **3. artikulua.- Definizioak.**

Lege honen ondorioetarako, definizio hauek hartuko dira kontuan:

1.- Lurzorua: Lurraren kanpo-geruzako alderdi solidoa da: harri amatik azalerainokoa. Barne hartzen ditu fase likidoa eta gaseosoa eta bertan bizi diren organismoak, eta funtzio naturaletarako nahiz erabilia izateko gaitasuna du. Nolanahi ere, ez da lurzorutzat hartuko lurrazaleko ur-geruza batek etengabe estaltzen duena.

2.- Kutsatutako lurzorua: Kimika-ezaugarrietan jatorri antropikoko edozein eraldaketa duen lurzoru oro, bere funtzioekin bateragarria ez denean, egungo erabilerarekin edo –erabilera aldatzekoa bada– izango duen erabilerarekin pertsonen osasunerako edo ingurumenerako arrisku onartezina duelako edo izan dezakeelako. Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak horrela izendatu behar du, lege honetan lurzoruaren kalitatea zehazteko araututako prozeduraren arabera.

3.- Eraldatutako lurzorua: Eraldatutakotzat joko da edozein lurzoru, detektatutako kutsatzaileek ezarritako erreferentziako balioak gainditzen dituztenean eta lurzorua ez dagoela kutsatuta egiaztatzeko arriskuen analisia egitea beharrezkoa denean. Eraldatutako lurzoruak Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak izendatu ditu “eraldatutako lurzoru”, lege honetan lurzoruaren kalitatea zehazteko araututako prozeduraren arabera.

4.- Kontrolatu gabeko hondakin-biltegi zaharrak: Hondakin inerteak eta inertizazioaren gai izan direnak kudeatzeko arauak finkatzen dituen azaroaren 2ko 423/1994 Dekretua indarrean sartu aurretik beren jarduerari utzi zioten eta ondorioz hondakindegiz-izaerarik ez duten hondakin-biltegien eremuak. Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak egon diren kokalekuen zerrendan “hondakindegiz” izen orokorrearekin dauden kokalekuak kontzeptu horretan sartzen dira.

5.- Lurzorua ukituz egiten diren jarduerak eta instalazioak: Jarduera edo instalazioa egiten den tokiaren eta lurzoruaren artean tarteko solairurik egon gabe egiten direnak.

6.- Ebaluazioko balio adierazleak: Lurzoruaren kalitatearen estandarren sistema eratzen duten kimika-gaien kontzentrazioei dagozkien balioak. Balio horiek lege honen III. eranskinean zehazten direnak dira; edo, eranskinean jasota ez dauden beste kimika-gai batzuen kasuan, arautzen den metodoaren arabera lortutakoak. Balio horiek honela daude definituta:

a) A motako ebaluazioko balio adierazlea (A-EBA). Substantzia jakin bat Euskal Autonomia Erkidegoko lurzorueta modu naturalean dagoen kontzentrazio-tarteko goi-mugarekin bat datorren estandarra. Salbuespen gisa, lurzoru batean dauden substantzia-kontzentrazioak naturalak direla ziurtatzen bada, toki horretan “A- EBA” A motako ebaluazioko balio adierazle ezberdin bat finkatzea onartu ahal izango da, zehazki dossier bakoitzaren baitan.

b) B motako ebaluazioko balio adierazlea (B-EBA). Lurzoruan dagoen substantzia baten kontzentrazio-maila horretatik gora lurzorua eraldatuta dagoela eta kutsatuta egon daitekeela adierazten duen estandarra; hori egiaztatzeko, arriskuen azterketa bat egitea eskatuko da. B-EBA balioa hainbat lurzoru-erabileratarako definitzen da.

Halaber, lurrazpiko uraren kasurako, erreferentziako balioak finkatu ahal izango ditu organo eskudunak.

7.- Arriskua: Hartzaileren bat lurzoruan dagoen gai kutsatzaile baten eraginpean egoteko aukera, pertsonen osasunean edo ingurumenean ondorio kaltegarriak eraginez.

Pertsonen osasuna babesteko, oro har, gai kantzerigenoen kasuan, arrisku onargarriko egoera da, gai horren eraginpean dagoen biztanlerian minbizia agertzeko ohiko maiztasuna ehun mila kasutik bat baino gutxiagokoa denean. Kantzerigenoak ez diren ondorioetarako, substantzia bakoitzerako epe luzeko esposizio-dosien eta gehieneko dosi onargarriaren arteko zatidura unitatea baino txikiagoa denean.

Ekosistemak babesteko, arrisku onargarriko egoeratzat hartzen da egoera, substantzia bakoitzerako, kontzentrazio gisa adierazitako esposizio-mailaren eta atalase ekotoxikologikoaren arteko zatidura unitatea baino txikiagoa denean; atalase hori ekosistemetan ondorioz espero ez den gehieneko kontzentrazioak definitzen du.

8.- Prebentziozko neurriak: Lurzorua kutsatzen duten ekintzak ekiditeko neurri guztiak.

9.- Babesteko neurriak: Ekintza kutsatzaileek lurzoruan eragiten dituzten ondorioak ekidin edo minimizatzen saiatzeko neurri guztiak.

10.- Oneratzeko neurriak: Lurzoruko substantzia kutsatzaileen kontzentrazioak murrizteko edo substantzia horien esposizioa edo barreiarabideak mugatzeko helburua duten neurri guztiak.

11.- Kontrolatzeko eta segimendua egiteko neurriak: Lurzorua kutsadurak nahiz eraldaketak kaltetutako lurzorua edo inguruneen kalitateak denboran duen bilakaera balioetsi ahal izateko informazioa lortzeko neurri guztiak.

12.- Teknologia eskuragarri onena: Aurrerapen tekniko edo zientifikoak eskaintzen duen teknologiatik, kostuak eta etekinak aintzat hartuta zentzuzko baldintzatan eskuragarri dagoena.

#### **4. artikulua.- Printzipioak.**

Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruen inguruan, herri-administrazioek printzipio hauen arabera jokatu dute:

- a) Lurzorua funtzio naturalei eustea.
- b) Bere funtzio gehienak mantentzea.
- c) Teknologia eskuragarri onenak erabiliz lurzoria oneratzeko, izango duen erabileraren arabera.
- d) Kokaleku berean lurzoria berriz erabiltzea dakarten konponbideei lehentasuna ematea.
- e) Lurzoria oneratzeko ekintza egoki baten kostuak bere gain hartzea ahalbidetuko duten erabilerak esleitzea lurzoriari.
- f) Hirigintza-kudeaketaren esparruko lurzoria guztia erabiltzeko ingurumen-konponbidea eskatzea, kutsagarria izan daitekeen jarduerak baldin badauka edo eduki badu.
- g) Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruen kalitatea ezagutzeari eta kontrolatzeari lehentasuna ematea.

#### **5. artikulua.- Hondakinak uzteko jarduerak daukaten kokalekuak.**

1.- Zigorak nahitaezkoa duten edo zigorak aurreikusten den hondakindegien kasuan, zuzen zigorak dela onartzeko edo itxiera ondoko aldia hasten dela xedatzeko ingurumen-organismoaren erabileraren kalitatearen erabazpenaren ondorioak izango ditu, eta, horretarako, bateragarria den erabileraren inguruko adierazpena jasoko da.

2.- Kontrolatu gabeko hondakin-biltegi zaharrek, lege honen ondorioetarako, lurzoria kutsa dezaketen jarduerak dauden edo egon diren lurzoruei ezartzen zaien araubide orokorra bete behar dute.

3.- Inola ere ez da emango kokalekua etxebizitzarako edo hiri-erabilerarako gai dela adierazten duen erabazpenik, lege honen arabera, kontrolatu gabeko hondakin-biltegi zahar bat dagoenean edo hiri-hondakin bezala gasak edo geoteknia-arazoak sor ditzaketen hondakinak edo hondakin arriskutsuak dauzkan hondakindegia bat dagoenean.

#### **6. artikulua.- Lurzorua kutsadura ekidin eta zuzentzearen arloko eskumenak gauzatzea.**

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunei dagokie lurzorua kutsadura ekidin eta zuzentzearen arloan araudia landu, onartu eta betearaztea, ingurumenaren arloko autonomia-erkidegoko araudian ezarritakoa betez; eta arlo horretako estatuko oinarritzko araudia betearazi eta garatzea ere bai.

2.- Udalek gauzatu behar dituzte ingurumenaren arloko autonomia-erkidegoko araudiak onartutako eskumenak, eta autonomia-erkidegoko gainerako legeak edo ezartzeko den beste edozein legeg esleitutakoak ere bai.

3.- Lege honetan ingurumen-organoari esleitzen zaizkion eskumenak Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari esleitzen zaizkiola ulertu behar da: berariazko araurik ezean, ingurumenaren arloan eskuduna den Eusko Jaurlaritzako saila izango da.

## II. KAPITULUA

### LURZORUAREN KALITATEA EZAGUTU ETA KONTROLATZEKO TRESNAK

#### 7. artikulua.- Lurzoruaaren kalitatea ezagutu eta kontrolatzeko tresnak.

Lurzoruaaren kalitatea ezagutzeko eta kontrolatzeko tresnak dira: lurzoruaaren kalitatearen arloko adierazpen-prozedurak, lurzoruaaren egoeraren txostenak, lurzoruaaren kalitatearen miaketazko ikerketak, lurzoruaaren kalitatearen ikerketa xeheak –arriskuen analisiak, oneratzeko planak eta gaika hondeatzeko planak barne– eta lurzoruaaren azken egoeraren ikerketak. Tresna horien edukia eta zehaztasun-maila hurrengo kapituluetan daude jasota, gerora egingo den arauaren garapena baztertu gabe.

#### 8. artikulua.- Lurzoruaaren kalitatearen arloko adierazpen-prozedurak.

1.- Lurzoruaaren kalitatearen arloan adierazpenak egiteko bi prozedura finkatzen dira: lurzoruaaren kalitatearen adierazpen-prozedura eta lurzoruaaren erabilera-gaitasunaren adierazpen-prozedura.

2.- Lurzoruaaren kalitatearen adierazpenaren prozedura administrazioko prozedura bat da, eta horren bidez balioesten du ingurumen-organoak lurzorua uneko edo aurreikusitako erabilerarako egokia den, baimendutako entitate batek egindako lurzoruaaren kalitatearen ikerketa-txostenen arabera. Nahitaez, lurzoruan dauden kutsatzaileen kontzentrazioa ezagutu behar da, eta ikerketa-fase bakoitzari dagozkion irizpideen arabera ebaluatu.

3.- Lurzoruaaren erabilera-gaitasunaren adierazpenaren prozedura administrazioko prozedura bat da, eta horren bidez balioesten du ingurumen-organoak industria-erabilerarako soilik balio duen lurzoruaaren gaitasuna. 25. artikuluan jasotako kasuetan, lurzoruaaren egoeraren txostena egin behar du, nahitaez, baimendutako entitate batek.

#### 9. artikulua.- Lurzoruaaren egoeraren txostenak.

1.- Lurzoruaaren egoeraren txostenen xedea hau da: lurzorua kutsa dezakeen jarduera edo instalazioen bat dagoen edo egon den lurzoruan kutsadura garrantzitsuak gertatu ote diren edo gerta daitezkeen balioestea.

2.- Balorazioa ondoko hauetan oinarrituko da: maneiatutako gai arriskutsuak eta sortutako hondakinak; instalazioen ezaugarriak eta ezarritako prebentzio-, babes-, kontrol- eta segimendu-neurri zehatzak; eta jarduera edo instalazioa dagoen ingurunea.

3.- Lege honen II. Eranskinean zehazten diren lurzorua kutsa dezaketen jardueren eta instalazioen kategorien arabera, zehaztasun-maila eta eduki desberdinak finkatuko dira, arauz, aurkeztu behar diren lurzoruaaren egoeraren txostenetarako.

#### 10. artikulua.- Lurzoruaaren kalitatearen miaketazko ikerketa.

1.- Miaketazko ikerketaren xedea hau da: lurzorua eraldatuta edo kutsatuta egotea ekar lezakeen gai kutsatzaileen kontzentrazioarik ba ote den egiaztatzea.

2.- Miaketazko ikerketa horren barruan sartzen dira: lurzoruaaren gainean garatutako jardueren inguruko ikerketa historiko bat egitea eta inguru fisikoaren ezaugarri nabarmenen datuak lortzea; baita ikertu beharreko eremu osoko ingurune garrantzitsuetan (lurzorua, ura eta airea) dauden gai kutsatzaileen zerrenda egiteko eta horiek espazioan duten banaketa mugatzeko laginak hartu eta analisiak egitea ere, azterketa-eremuan bereizitako azpiero bakoitzean agertutako gaien kontzentrazioa adieraziz. Ikerketa

horren emaitza gisa, baimendutako entitate batek ikerketaren gaineko txostena egingo du, arauz zehaztuko den edukiarekin.

3.- Kontrolatu gabeko hondakin-biltegi zaharren kasuan, ikerketak kokaleku osoa hartuko du, nahiz eta prozedura hastea eragin duen ekintzak biltegiaren zati bati bakarrik eragin.

#### **11. artikulua.- Lurzoruaren kalitatearen ikerketa xehea.**

1.- Ikerketa xehearen helburua hau da: arrisku onartezina izan dezaketen lurzoruetan, bide eman behar du kutsadurak eraginda egon daitezkeen lurzoruetan eta gainerako inguruneetan dauden gai kutsatzaileen motak, kontzentrazioa eta banaketa zuzen zedarritzeko, baita gai kutsatzaileak egoteagatik ingurumenak eta pertsonen osasunak dituen arriskuak kuantifikatzeko ere.

2.- Ikerketa horretan sartuko dira: laginak hartzeko eta kimika-analisiak egiteko kanpaina bat edo gehiago eta ingurune fisikoaren eta giza ingurunearen azterketa sakon bat. Halaber, kasuen arabera, arriskuen analisi bat, lurzoruaren oneratzeko aukeren azterketa bat, oneratzeko plan bat eta gaika hondeatzeko plan bat egingo dira. Ikerketa horren ondorioz, baimendutako entitate batek ikerketaren txostena egingo du, arauz zehaztuko den edukiarekin.

#### **12. artikulua.- Arriskuen analisia.**

1.- Arriskuen analisia: Zenbait parametro identifikatu, neurtu eta konparatzeko prozesua, kaltetutako inguruneetan zenbait gai egoteak pertsonen osasunerako eta ingurumenerako dituen arriskuak analizatu eta arriskuon ezaugarriak ezagutu ahal izateko.

2.- Ikerketa xehearen edukia den aldetik, lurzoruaren kutsadurak eragin diezaiekeen objektu guztiak hartu behar dira kontuan arrisku-analisan. Aintzat hartuko da lurzoruaren kutsaduraren ondorioz pertsonen osasunean eta, kasuaren arabera, ekosistemen funtzionamenduan ondorio kaltegarriak eragiteko aukerarik dagoen; eta, aldi berean, kutsadura beste ingurune batzuen bidez barreiatzeko aukerak ebaluatuko dira (bereziki uraren bidez barreiatzekoak), eta kutsadurak produktibitatean eta azpiegiturretan izan dezakeen eragina ere bai. Ikerketa xehea egiteko unean lurzoruak duen erabilera edo aurreikusitako erabilera kontuan hartuta egingo da arriskuaren balorazioa.

3.- Arriskuen analisiaren gutxieneko edukia arauz zehaztuko da.

#### **13. artikulua.- Aukeren azterketa eta oneratzeko plana.**

1.- Lurzoruaren oneratzeko aukeren azterketaren helburua, ikerketa xehearen edukia den aldetik, kutsatutzat edo eraldatutzat jotako lurzoruaren saneatzeko erabil daitezkeen teknikak eta neurriak identifikatzea eta konparaziozko balorazioa egitea da. Balorazio-prozesuan, teknikaren, ingurumenaren, ekonomiaren edo intereseko beste edozein alderdi hartuko da kontuan.

2.- Lurzoruaren oneratzeko planaren xedea, berriz, 43. eta 44. artikuluetan finkatzen diren oneratzeko-mailak edo oneratzeko-helburuak lortzen direla bermatzeko gauzatu beharreko ekintzak diseinatzea da; kasu guztietan, teknologia eskuragarriarik onena erabiliko da.

3.- Lurzoruaren oneratzeko planean, ikerketa xehearen edukia den aldetik, gutxienez alderdi hauek garatuko dira, gerora egingo diren arauen garapenak bazter utzi gabe:

- a) Konpondu beharreko arazoaren deskribapena eta oneratzeko helburuak
- b) Oneratzeko proposatutako tekniken eta neurrien deskribapena eta justifikazioa
- c) Hala dagokionean, instalazioaren eskema funtzionala. Materien eta energiaren balantzeak
- d) Ingurumenean izan daitezkeen ondorioak kontrolatzeko, detektatzeko eta zuzentzeko neurrien deskribapena eta justifikazioa
- e) Hala dagokionean, proben, entseguen eta eraginkortasunaren segimenduaren analisiak
- f) Lurzoruaren azken egoeraren ikerketa-proposamena
- g) Baimenak eta eskumenak, beharrezkoak direnean

#### **14. artikulua.- Gaika hondeatzeko plana.**



1.- Gaika hondeatzeko planaren xedea hau da: lurzorua kutsa dezakeen jarduera bat dagoen edo egon den kokaleku batean hondeaketa-ekintzak planifikatzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren alderdiak garatzea, A ebaluazioko balio adierazleak gainditu direnean. Ingurumenaren aldetik hondeaketaren segimendua eta kontrola bermatu behar ditu planak, eta, nolana ere, hondeatutako materialak zuzen berrerabiltzea edo kanpoan zuzen kudeatzea optimizatu eta ziurtatuko du.

2.- Ikerketa xehearen zatia den aldetik, hondeaketa-plan horretan, gutxienez, eta geroko arau-garapenak bazter utzi gabe, alderdi hauek jasoko dira:

- a) Hondeatzeko materialen guztizko azalaren eta bolumenen mugaketa
- b) Hondeaketaren prozedura orokorra eta metodologia
- c) Hondeaketaren segimendu-estrategiaren deskribapena (laginak hartzea eta ezarritako analisiak, urarenak barne)
- d) Hondeatutako materialen helmugaren definizioa, eta, hala dagokionean, hondeatzean agertu daitekeen uraren kudeaketa
- e) Ingurumenaren aldetik hondeaketa kontrolatzeko eta segimendua egiteko neurriak
- f) Gelditutako lurzoruaren kalitatearen laginketa-proposamena

#### **15. artikulua.- Lurzoruaren azken egoeraren ikerketa**

1.- Ikerketa horren xedea hau da: eraikuntza-arrazoiengatik lurzorua oneratzeko edo hondeatzeko neurriak hartu ondoren, behar adina datu ematea eta datu horiekin bermatzea aplikatutako oneratzeko teknikarekin edo egindako hondeaketarekin lortu egin ahal izan direla gelditutako lurzorua oneratzearen eta kalitatearen gaian ingurumen-organoak eskatzen dituen helburuak. Ikerketa hori egin ondoren lantzen den agiria izango da oinarri, hondeaketaren ostean gelditzen den lurzoruaren oneratzea nahiz kalitatea ziurtatzeko.

2.- Lurzorua hondeatu behar denean, 199/2006 Dekretuko II. Eranskinean ezarritako jarraibideei jarraituz egingo da ikerketa; eta oneratzeko beste edozein teknika erabili behar bada, oneratzeko planean ezarriko den metodologiaren arabera.

### **III. KAPITULUA**

#### **LURZORUEN EDUKITZAILE ETA JABE DIREN PERTSONA FISIKOEN EDO JURIDIKOEN BETEBEHARRAK**

#### **16. artikulua.- Lurzoruaren babesa.**

Lurzoruen edukitzaile eta jabe diren pertsona fisikoek edo juridikoek oinarritzko betebeharra da lurzorua zaintzea, eta betebehara horretan sartzen da lurzoruaren kalitatea ezagutu eta kontrolatzea, bai eta lege honetan zehaztutako kasuetan prebentziozko, babesteko, oneratzeko eta kontrolatu eta segimendua egiteko neurriak hartzea ere.

#### **17. artikulua.- Lurzoruaren egoera ezagutzea.**

1.- Lurzorua kutsa dezaketen jarduera edo instalazio berriak jarri nahi dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek lurzoruaren egoeraren txostena bidali beharko diote autonomia-erkidegoko ingurumen-organoari, jarduerak edo instalazioak behar duen baimena eskuratzeko edo jakinarazpena aurkezteko.

2.- Orobat, lurzoruaren egoeraren txostenak aldian-aldian eguneratzea eskatu ahal izango du ingurumen-organoak. Edozelan ere, kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuen araudiaren mende dauden instalazioek 5 urtean behin aurkeztu beharko dituzte, gutxienez, txosten horiek.

3.- 24. eta 25. artikuluetan jasotako kasuetan, artikuluan jasotako ekintzak sustatzen dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek hasiera eman beharko diote V. kapituluaren arautzen diren lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren prozedurari edo lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpenaren prozedurari.

## **18. artikulua.- Lurzoruak eskualdatzea.**

1.- Lurzorua kutsa dezakeen jarduera edo instalazioen bat duten edo izan duten lurzoruen jabe diren pertsona fisikoek edo juridikoek, lurzoru horien gaineko edozein eskubide eskualdatzean, eskritura publikoan adierazi behar dute.

2.- Notarioek ez dute baimenduko lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dauden edo egon diren lurzoruen gaineko eskubideak eskuratzeko tituluak edo beste zeinahi eskualdatze-egintza eskritura publikoan formalizatzea, eskuratzailari egoera horren berri eman zaiola era frogagarrian egiaztatzen ez bada.

3.- Jabetza-erregistratzaileek uko egingo diote lurzoru horien gaineko eskubideak eskuratzeko tituluak edo beste edozein eskualdatze-egintza inskribatzeari, eskuratzailari jakinarazpena helarazi zaiola behar bezala egiaztatu ezean.

## **19. artikulua.- Prebentziozko eta babesteko neurriak.**

1.- Lurzoruaren edukitzaile edo jabe diren pertsona fisikoak edo juridikoak, eta bereziki lurzorua kutsa dezaketen jardueren edo instalazioen titular direnak, behartuta daude ingurumen-organoak ezarritako prebentziozko eta babesteko neurriak hartzera.

2.- Prebentziozko eta babesteko neurri horiek, oro har, ondoko hauetan sartuko dira: ingurumen-baimen bateratuan, sailkatutako jardueren lizentziak emateko prozeduran egindako neurri zuzentzaileen nahitaezko txostenean, ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpenean, araudi sektorialetan jasotako baimenetan, eta, hala dagokionean, lurzoruaren kalitatearen adierazpena edo aurreikusitako erabilerarako gaitasunaren adierazpena ematen duen ebazpenean.

3.- Orobat, lurzoruaren edukitzaile edo jabe diren pertsona fisikoak edo juridikoak, eta bereziki lurzorua kutsa dezaketen jardueren edo instalazioen titular direnak, behartuta daude ezartzekoa den araudi sektorialak finkatzen dituen prebentziozko eta babesteko neurriak hartzera.

## **20. artikulua.- Oneratzeko neurriak.**

1.- Lurzoruaren edukitzaile edo jabe diren pertsona fisikoak edo juridikoak, eta, edozelan ere, lurzorua kutsatu edo eraldatu duten jardueren edo instalazioen titularrak edo arduradunak, behartuta daude ingurumen-organoak finkatutako oneratzeko neurriak hartzera.

2.- Oneratzeko neurriak, oro har, lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren ebazpenetan sartuko dira.

## **21. artikulua.- Kontrolatzeko eta segimendua egiteko neurriak.**

1.- Lurzoruaren edukitzaile edo jabe diren pertsona fisikoak edo juridikoak, eta bereziki lurzorua kutsa dezaketen jardueren edo instalazioen titular edo arduradun direnak, behartuta daude autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak ezarritako kontrol- eta segimendu-neurriak hartzera.

2. Kontrol- eta segimendu-neurri horiek, oro har, ondoko hauetan sartuko dira: ingurumen-baimen bateratuan, sailkatutako jardueren lizentziak emateko prozeduran egindako neurri zuzentzaileen nahitaezko txostenean, ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpenean, araudi sektorialetan jasotako baimenetan, eta, hala dagokionean, lurzoruaren kalitatearen adierazpena edo aurreikusitako erabilerarako gaitasunaren adierazpena ematen duen ebazpenean.

3.- Orobat, lurzoruaren edukitzaile edo jabe diren pertsona fisikoak edo juridikoak, eta bereziki lurzorua kutsa dezaketen jardueren edo instalazioen titular edo arduradun direnak, behartuta daude ezartzekoa den araudi sektorialak finkatzen dituen kontrol- eta segimendu-neurriak hartzera.

## **22. artikulua.- Kautelazko neurriak.**

Presazko eta salbuespenezko arrazoiak direla-eta, prebentziozko eta babesteko neurriak, kontrol- eta segimendu-neurriak eta oneratzeko neurriak hartzeko agindu ahal izango du autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak. Aldez aurretik, pertsona interesdunei entzunaldia eskainiko die, eta ebazpen

arrazoituaren bidez aginduko du neurriak hartzeko, arduradunak nortzuk diren zehaztuta. Horrek ez du baztertzen aurreko artikuluetan ezarritako prozedurak betetzea. Neurri horiek hartzeko eskakizuna egiteak ez du baztertuko zehatzeko araubidean ezarritakoa.

### **23. artikulua - Jakinarazteko betebeharra.**

1.- Gai kutsatzaileen eraginpean dauden lurzoruen edukitzaile edo jabe diren pertsona fisikoek edo juridikoek, eragin hori detektatu eta berehala eman behar diote horren berri autonomia-erkidegoko ingurumen-organoari, organo horrek hartu behar diren neurriak ezar ditzan eta neurriok betetzera behartuta dauden pertsona fisikoak edo juridikoak zehaztu ditzan, Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen 17. artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe.

Informazio hori ingurumen-organoari eman beharko zaio, lurzoruetan lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak egon zein ez.

2.- Lur-indusketak edo lur-mugimenduak egiten direnean lurzorua kutsatuta dagoela adierazten duen zantzurik detektatzen bada, jarduera horien arduraduna behartuta egongo da horren berri berehala tokian tokiko udalari eta autonomia-erkidegoko ingurumen-organoari ematera, organo horrek hartu behar diren neurriak eta neurriak hartu behar dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak zehaztu ditzan.

3.- Beren eskumenen esparruan lurzorua kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat utzi edo jarri dela dakiten herri-administrazioek, berehala jakinarazi beharko diote ingurumen-organoari.

4.- Ingurumen-organoak, bere aldetik, lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren eta lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpenaren prozedurak hasteko jasotzen dituen eskaeren berri emango die tokian tokiko udalei.

## **IV. KAPITULUA**

### **LURZORUAREN KALITATEAREN GAIKO ADIERAZPENAK**

#### **24. artikulua.- Lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren kasuak.**

1.- Autonomia-erkidegoko ingurumen-organoari dagokio lurzoruaren kalitatearen adierazpena egitea, hurrengo egoeratakoen bat gertatzen denean:

a) Kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat dagoen edo egon den lurzoru batean, jarduera bat jarri edo handitzea.

b) Lurzorua kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat egon den kokaleku batean lur-mugimenduak egitea, gaur egun jardunean ez dagoenean.

c) Lurzorua kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat behin betiko uztea.

d) Kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat dagoen edo egon den lurzoru baten erabilera aldatzea.

e) Lurzoruan gai kutsagarrien zantzu oinarrituak egotea.

f) Lurzoruaren jabe edo edukitzaile diren pertsona fisikoek edo juridikoek eskatzea.

2.- Aurreko zenbakian jasotako ekintzaren baten ondorioz egin behar diren lur-mugimenduak egiteko, ingurumen-organoak aldeztu aurretik onartu beharko du gaika hondeatzeko plan bat, lurzoruaren kalitatearen kasuan kasuko prozeduran.

#### **25. artikulua.- Lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpenaren kasuak.**

Aurreko artikuluko lehen zenbakiko a) edo c) letretan jasotako kasuetan, autonomia-erkidegoko ingurumen-organoari dagokio lurzoru bat industria-erabilerarako gai dela adieraztea, baldin eta

prozedura horretako lurzoruan egon den jarduera, lege honen II. eranskinaren arabera, kutsatzeko gaitasun handia duen jarduera gisa sailkatuta ez badago.

## **26. artikulua.- Lurzoruaren kalitatearen arloko adierazpen-prozeduretatik salbuesteko kasuak.**

1.- Ez da beharrezkoa izango lurzorua kalitatearen arloko adierazpen-prozedurak hastea, 24. artikuluko kasuren bat jazo arren aldi berean ondoko egoeraren bat gertatzen denean:

a) Lurzoria kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat dagoen edo egon den kokaleku baten zati bat okupatzen denean, komunikazio-azpiegituretarako zutabeak eraikitzeke lur-mugimenduen ondorioz edo argia, ura, gasa zein telekomunikazioak bezalako zerbitzu orokorrak jartzearen ondorioz.

b) Lurzoria kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat handitzean, handitu nahi den jarduerak hartzen duen lursailaren mugen barruan egiten denean.

2.- 1. zenbakian ezarritakoaz gainera, ingurumen-organismoak salbuetsi egin ahal izango du lurzorua kalitatearen arloko adierazpen-prozedurak betetzetik, baldin eta 24. artikuluko lehen ataleko c) leturan deskribatutako egoera gertatzen bada eta aldi berean jarduera edo instalazioa partzialki uzten bada. Baita, artikuluko bereko a) leturan deskribatutako egoeran, jarduerak egiteko instalazioak aldi baterako direnean ere.

3.- 24. artikuluko lehen zenbakiko a) edo d) letretan jasotako kasuak gertatzen direnean eta aldez aurretik lurzorua kalitatearen adierazpen bat badagoenean, ingurumen-organismoan egin beharko da kontsulta, ebazpen arrazoituaren bidez adierazpen horren balioaz irizpena eman dezan eta, behar izanez gero, balio horri eusteko baldintzak ezar ditzan.

## **27. artikulua.- Lizentziak eta baimenak baliogabetzea.**

Erabat deusezak izango dira lizentziak, baimenak eta gainerako ebazpenak, lurzorua kalitatearen arloko adierazpen-prozeduran ingurumen-organismoak emandako berariazko aldeko erabakia ez badute, baldin eta prozedurak erabaki hori eskatzen badu.

## **V. KAPITULUA**

### **LURZORUAREN KALITATEAREN ARLOKO PROZEDURAK**

#### **Lehen atala: Lurzoruaren kalitatearen arloko prozeduren xedapen erkideak**

## **28. artikulua - Aldez aurreko kontsulta eta informazioa.**

Aurreko kapituluan jasotako lurzorua kalitatearen arloko prozeduraren baten mende dauden ekintzak sustatzen dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek aurretiazko kontsulta bat egin ahal izango dute ingurumen-organismoan, honako hauek eskuratzeko: prozedura horien eskakizun teknikoek eta juridikoek gaineko informazioa, prozedura hasteko eman beharreko datuen zehaztasuna edo beste edozein alderdi aipagarri.

## **29. artikulua.- Erregistroetan inskribatzea.**

1.- Lurzoruaren kalitatearen arloan ingurumen-organismoak emandako ebazpenak Jabetza Erregistroko bazterreko ohar batean jasoko dira, organismoak eskatuta.

2.- Era berean, lege honetako 52. artikuluan jasotako administrazio-erregistroan sartuko dira ebazpen horiek, euskarri izan den agiri-multzoarekin batera.

## **30. artikulua - Administrazio-prozeduraren arauak.**

Kapitulu honetan arautu ez den guztirako Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutako prozedura-arauak aplikatuko dira.

## **Bigarren atala: Lurzoruaren kalitatearen adierazpen-prozedura**

### **31. artikulua.- Prozedura hastea.**

1.- 24. artikuluko lehen zenbakiko a) eta b) letretan jasotako kasuetan, lurzoruaren kalitatearen adierazpena egin beharko du ingurumen-organoak, jarduera jartzeko edo handitzeko edo lur-mugimenduak egiteko gaitzen duten lizentziak edo baimenak eman aurretik.

2.- 24. artikuluko lehen zenbakiko c) letretan jasotako kasuan, jarduera edo instalazioa behin betiko uzten denetik gehienez bi hilabeteko epean, horren berri eman beharko dio titularrak ingurumen-organoari, eta nola jokatuko den jakinarazi. Aurkeztutako proposamena ikusita, prozedura hasteko ematen duen gehieneko epea finkatuko du ingurumen-organoak.

3.- 24. artikuluko lehen zenbakiko d) letretan jasotako kasuan, lurzoruaren kalitatearen adierazpena egin beharko du ingurumen-organoak, antolamendu xehaturako tresnak edo horien aldaketak behin betiko onartu aurretik eta ahal dela prozeduren hasierako faseetan.

Hala ere, kokaleku horretan guztian edo zati batean lurzoruaren kalitatea ikertzea eragozten duten egoerak gertatzen badira, kasuan kasuko antolamendu-tresna behin betiko onartu ahal izango da, lurzoruaren kalitatearen adierazpenik gabe. Kasu horretan, hirigintzako jarduketa-programari hasierako onespina eman aurretik egin beharko da adierazpen hori; edo, horrelako programarik ezean, kokalekua bere baitan hartzen duen kudeaketa-esparruaren birpartzelazio- eta urbanizazio-proiektuei hasierako onespina eman aurretik.

4.- 24. artikuluko lehen zenbakiko e) letretan jasotako kasuan, prozedura hastea eskatzeko ingurumen-organoak ematen duen aurretiazko ebazpenean finkatuko dira prozedura hasteko epea eta hori egin behar duen pertsona edo pertsonak.

### **32. artikulua.- Prozedura hasteko aurkeztu beharreko dokumentazioa.**

1.- Lurzoruaren kalitatearen adierazpen-prozeduraren mende dauden ekintzak sustatzen dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek prozedura hastea eskatu beharko diote ingurumen-organoari, miaketazko ikerketaren txostena bidaliz, eta, hala badagokio, egin den ikerketa xehearena ere bai.

2.- Miaketazko ikerketaren emaitza aztertu, eta lurzoruak duen edo izango duen erabilerarako B ebaluazioko balio adierazleak gainditu direla ondorioztatzen bada (B-EBA), ikerketa xehea aurkeztu beharko da. Era berean, ikerketa xehea aurkeztu beharko da, uretan edo airean gai kutsatzaileak arrisku onartezina ekar dezaketan kontzentraziotan detektatzen direnean.

Ikerketa xehearen edukiari dagokionez, lurzoruaren kalitatearen adierazpen-prozedura hastea eragin duen ekintzaren ondorioz ezinbestekoa baldin bada ikertzeko lurzoru guztia edo zati bat hondeatzea, ikerketa xehean ez da egin beharko hondeatzeko lurzoruaren inguruko arriskuen analisirik, eta analisi horren ordez gaika hondeatzeko plan bat egin beharko da.

3.- Arriskuen analisia aztertuta arrisku onartezina dagoela ondorioztatzen bada, oneratzeko aukeren azterketa bat ere aurkeztu beharko da, oro har, eta hautatutako aukerari dagokion oneratzeko plana ere bai. Dena den, baldin eta, kokalekuaren ezaugarriengatik, gomendagarria bada aukeren azterketaren gainean ingurumen-organoak egindako aldeko erabakia aldeztu aurretik eskuratzea, hori eskuratu arte atzeratu ahal izango da hautatutako aukerari dagokion oneratzeko plana lantzea.

### **33. artikulua.- Txostenak eskatzea eta parte-hartze publikoa.**

1.- Arriskuen analisia aztertuta pertsonen osasunerako arrisku onartezina dagoela ondorioztatzen bada, txostena eskatuko zaio osasunaren gaian eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari. Orobat, txostena

eskatuko zaio Uraren Euskal Agentziari, lurpeko ura kutsatu delako arrisku onartezina detektatzen bada. Bi kasuetan, hilabeteko epea emango zaie kontsulta egin zaien administrazioei, beren txostena egiteko.

Txosten horiek hurrengo puntuan arautzen den parte-hartze publikoaren izapidearen mende dagoen dossierrean sartuko dira.

2.- Ingurumen-organoak parte-hartze publikoaren izapidea egingo du prozeduran, baldin eta arriskuen analisisan arriskua onartezina dela ondorioztatzen bada edo baldin eta lurzoruaren kalitatea ikertzeko azterlanetan B ebaluazioko balio adierazleak analizatutako parametroren batean 100 bider baino gehiagotan gainditzen direla egiaztatzen bada (B-EBA).

Halaber, prozeduran jendaurreko informazioaren izapidea betetzea erabaki ahal izango du ingurumen-organoak, hori gomendatzen duten arrazoi justifikatuak daudenean.

3.- Aurreko zenbakian ezartzen den parte-hartze publikoaren izapidea egiteko, iragarkia jarriko da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan.

#### **34. artikulua.- Lurzoruaren kalitatearen inguruko adierazpena egiteko edo hondeaketa baimentzeko ebazpena.**

1.- Aurreko izapide horiek egin behar direnean, izapideok egin ondoren lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren ebazpen-proposamena egingo du ingurumen-organoak, edo, hala dagokionean, gaikako hondeaketa egiteko baimenarena. Ebazpen-proposamena interesdunei eta dagokion udalari bidaliko zaie, eta hamabost eguneko entzunaldia eskainiko zaie.

2.- Alegazioak egiteko epe hori bukatutakoan, ingurumen-organoak ebazpen zehatza eta arrazoitua emango du, lurzoruaren kalitatearen adierazpena eginez edo gaika hondeatzeko plana baimenduz.

3.- 24. artikulua 1.f) zatian ezarritakoaren babesean hasitako prozeduretan, lurzoru kutsatuta dagoela erabakitzen bada, eta borondatez aukeren azterketa bat eta oneratzeko plan bat aurkezten bada, lurzoru kutsatuaren adierazpena aldeztu aurretik egin gabe onartu ahal izango du organo eskudunak plan hori.

#### **35. artikulua.- Lurzoruaren kalitatearen inguruko adierazpenaren edukia.**

1.- Lurzoruaren kalitatearen inguruko adierazpenaren ebazpenean adieraziko da lurzoru hori, lege honek ezarritakoaren arabera, kutsatuta dagoen, eraldatuta edo eraldatu gabe.

Lurzoru bat kutsatuta dagoela adierazten bada, eraikitze eskubideen betearazpena eta lurzoruaren beste aprobetxamendu batzuk eten egingo dira, lurzoru oneratzeko ezartzen diren neurriak hartu arte edo kutsatu gabeko lurzoru izendatu arte.

2.- Lurzoruaren kalitatearen inguruko adierazpenaren ebazpenean, hondakinen eta kutsatutako lurzoruen uztailaren 28ko 22/2011 Legean eskatutakoaz gain (XI. eranskineko 1. zatia), honako hauek sartuko dira:

- a) Lurzoruaren mugak.
- b) Adierazpenean oinarritzat erabilitako ikerketa-maila.
- c) Kutsatutzat jotako lurzoruen kasuan, adierazpen horrekin bateraezinak diren erabilerak.
- d) Eraldatutzat jotako lurzoruen kasuan, adierazpen horrekin bateragarriak diren erabilerak.
- e) Beharrezkoak badira, hartu behar diren prebentziozko, babesteko eta kontrolatu eta segimendua egiteko neurriak; eta horretara behartutako pertsona fisikoak edo juridikoak nortzuk diren eta neurriok zein epetan hartuko diren ere bai.
- f) Adierazpenaren oinarri den motibazio juridikoa eta teknikoa.
- g) Arau honetan ezarritakoaren arabera ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa.

3. - Oneratzeko neurriak hartzeko eskatu behar denean, ebazpen horrek, kasuaren arabera: baimendu egingo du horretarako aurkeztutako oneratzeko plana; onartu egingo du proposatutako aukera; edo beharrezkotzat jotzen dituen oneratzeko neurriak ezarriko ditu, eta zehaztu egingo du horretara behartutako pertsona fisikoak edo juridikoak nortzuk diren eta neurriok zein epetan hartuko diren. Halaber, aipatutako ebazpenean zehaztuko da segimendu-txostenen edukia, hori behar den kasuetan; eta oneratzeara egiaztatuko duen azken txostenarena ere bai.

Neurri horiek hartu ondoren, egiaztatu egin beharko da kaltetutako lurzoruak oneratu egin direla, lege honen VI. kapituluaren ezarritakoaren ondorioetarako.

4.- Beharrezkotzat joz gero, xede horretarako behar adinako abalak, fidantzak edo beste berme batzuk eratzea eskatu ahal izango da, ezarritako neurriak beteko direla bermatzeko.

### **36. artikulua.- Hondeatzea baimentzeko adierazpenaren edukia.**

Hondeatzea baimentzen duen ebazpenean, gutxienez, alderdi hauek jasoko dira:

- a) Hondeatuko den eremuaren mugak
- b) Hondeatzen hasteko epea
- c) Hondeatutako materialen karakterizazioaren eta norakoaren inguruko baldintzak eta gelditutako lurzoruaren kalitatearen karakterizazio-planaren ingurukoak.
- d) Ingurumenaren kontrol- eta segimendu-planaren inguruko baldintzak eta laneko segurtasunaren eta osasunaren plana.
- e) Hondeatzeko lanek iraun bitartean egin behar den karakterizazio-kanpainaren zehaztasun-maila.
- f) Lurzoruaren azken egoeraren gaineko ebazpena ematea ahalbidetuko duen azken deskribapen-txostenaren edukia.

### **37. artikulua.- Prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea.**

1.- Prozedura ebatzi eta jakinarazteko epea, 24. artikuluko lehen zenbakiko a), b) eta d) letretako kasuetan, ezin daiteke izan sei hilabete baino gehiagokoa; aipatutako epean berariazko ebazpenik eman ezean, lurzoruaren aurreikusitako jarduerak egiteko gaitzen duten eskumenak, lizentziak eta baimenak eman ahal izango dira.

Lurzoruaren kalitatearen adierazpen-prozeduran gaika hondeatzeko plan bat onartu behar denean, plan hori onartzeko epea 5 hilabetekoa izango da; eta hilabete batekoa, azken txostena aurkezten denetik zenbatzen hasita. Txosten horretan egiaztatuko dira baimendutako ekintzak eta lurzoruaren kalitatearen adierazpena egiteko behar den lurzoruaren azken egoeraren ikerketaren txostena.

2.- Bestalde, 24. artikuluko lehen zenbakiko c), e) eta f) letretako kasuetan, prozeduraren hasieratik sei hilabete igaro eta lurzoruaren kalitatearen adierazpenik egin ez bada, iraungi egingo da prozedura.

### **Hirugarren atala: Lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpen-prozedura.**

#### **38. artikulua.- Prozedura hastea.**

Lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpen-prozeduren mende dauden ekintzak sustatzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak prozedura hastea eskatu beharko diote ingurumen-organismoari, eta baimendutako entitate batek landutako lurzoruaren egoeraren txostena bidali, arauz zehazten den edukiarekin eta zehaztasun-mailarekin.

#### **39. artikulua.- Lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpena egiteko ebazpena.**

Lurzoruaren erabilera-gaitasunaren inguruko adierazpenaren ebazpena ingurumen-organismoak emango du, eta gutxienez eduki hau izango du:

- a) Lurzoruaren mugak.
- b) Aurreikusitako industria-erabilerarako lurzoruak duen bateragarritasuna.
- c) Ezarritako prebentziozko, babesteko eta kontrolatu eta segimendua egiteko neurriak, eta, hala dagokionean, hartu behar diren neurriak.
- d) Adierazpena egiteko oinarri den motibazio juridikoa eta teknikoa.

#### **40. artikulua.- Prozedura ebatzi eta jakinarazteko epea.**

Lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpen-prozedura ebazteko epea ezin daiteke izan hiru hilabete baino gehiagokoa; aipatutako epean berariazko ebazpenik eman ezean, lurzoru-erabilerarako aurreikusitako jarduerak egiteko gaitzen duten eskumenak, lizentziak eta baimenak eman ahal izango dira.

#### **Laugarren atala: Lurzoruaren kalitatearen edo erabilera-gaitasunaren inguruko adierazpenetik salbuesteko prozedura**

#### **41. artikulua.- Prozedura hastea.**

1.- 26. artikulua 1. zenbakian jasotako ekintzak sustatzen dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek aurretiazko jakinarazpen bat bidali beharko diote ingurumen-organismoari, eta aurreikusten den hondeaketaren eremua eta bolumena zehaztu beharko dituzte. Hondeaketa egin ondoren, hondeatutako materialak zuzen berrerabili edo kudeatu direla egiaztatzeaz azken txostena bidaliko da, materialak behar bezala karakterizatu ondoren.

2.- 26. artikulua 2. eta 3. zenbakietan jasotako ekintzak sustatzen dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek jakinarazi egin beharko diote ingurumen-organismoari, erantzukizuneko adierazpenaren bidez, zein ekintza zehatzetarako eskatzen den salbuespena. Jakinarazpen horrekin batera, edozelan ere informazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Ekintza egin nahi den geografia-esparruaren mugak.
- b) Ekintza egiteko ezarritako egunak.
- c) Jarduera partzialki uzteko ekintzen kasuetan, justifikatu egin beharko da uzte hori partziala dela.
- d) Aldi baterako instalazio bateko ekintzen kasuetan, justifikatu egin beharko da instalazioa aldi baterakoa dela, eta zein epe izango duen adierazi.
- e) Aurreko adierazpen bat dagoen kasuetan, aurreko adierazpena egin zenetik lurzoru horretan jarritako jardueren edo instalazioen egiaztapenak erantsi beharko dira, eta aurreko adierazpen hura identifikatu.

3.- Hondeaketa dakarten aurreko kasu horietan guztietan, 500 m<sup>3</sup> lur baino gehiago hondeatzen denean, gaika hondeatzeko plan baten arabera egingo da hondeatzeko materialen karakterizazioa. Plan hori baimendutako entitate batek landuko du; planak 14. artikuluan adierazitako edukia jaso beharko du; eta ingurumen-organismoak onartu behar du plana, hondeaketa egin aurretik.

#### **42. artikulua.- Prozedura ebatzi eta jakinarazteko epea.**

Aurreko artikuluan araututako jakinarazpenaren inguruko erabaki bat emango du ingurumen-organismoak, gehienez hilabeteko epean; eta epe horretan ematen ez badu, aldekoa dela ulertuko da.

## **VI. KAPITULUA**

### **LURZORUA ONERATZEA**



## **Lehen atala: Lurzoruak oneratzeko neurriak eta neurri horiek hartuko dituzten arduradunak**

### **43. artikulua.- Kutsatutzat jotako lurzoruak oneratzeko neurrien norainokoa.**

1.- Ekintza kutsatzailea Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra indarrean sartu baino lehen egin bada, kutsatutzat jotako lurzoruak oneratzeko neurrien xedea hau izango da: lurzoru horri edo kutsadurak kaltetutako urari izango duten erabileraren berezko funtzioak betetzeko gaitasuna itzultzea, teknologia eskuragarririk onena baliatuz.

2.- Baldin eta otsailaren 27ko 3/1998 Legea indarrean jarri ostean gertatu bada ekintza kutsatzailea, kutsatutzat jotako lurzoruak oneratzeko neurrien xedea lurzoruak edo/eta urak lehenago izandako egoeraren ezaugarriak berreskuratzea izango da; edo, egoera hori ezagutu ezean, gutxienez B ebaluazioko balio adierazleen pareko lurzoruaren kalitate-estandarrak edo urarentzat baliokideak direnak lortzea. Horretarako, eskuragarri dagoen teknologiarik onena erabiliko da.

### **44. artikulua.- Eraldatutako lurzoruak oneratzeko neurrien norainokoa.**

1.- Eraldatutako lurzoruak oneratzeko neurriak ezartzeko, eraldatzea eragin duen ekintza otsailaren 27ko 3/1998 Legea indarrean sartu aurrekoa izan beharko da.

2.- Eraldatutako lurzoruak oneratzeko neurrien xedea lurzoruaren edo/eta uraren lehenagoko egoeraren ezaugarriak berreskuratzea izango da, edo, egoera hori ezagutu ezean, gutxienez B ebaluazioko balio adierazleen pareko lurzoruaren kalitate-estandarrak edo urarentzat baliokideak direnak lortzea. Horretarako, eskuragarri dagoen teknologiarik onena erabiliko da.

### **45. artikulua.- Hondakinen araudiarekiko bateragarritasuna**

Aurreko artikuluetan finkatutako oneratzeko neurriak ezarri arren, aplikatu egingo da hondakinen gaian indarrean dagoen araudi sektoriala; eta ingurumen-organoak eskatu egin ahal izango du kokalekuan detektatu ahal izan diren jatorri antropikoko hondakinak kentzeko eta zuzen kudeatzeko, bereziki hondakin arriskutsuak direnean.

### **46. artikulua.- Kutsatutako eta eraldatutako lurzoruak oneratzeko neurriak hartzera behartuta dauden pertsona fisikoak edo juridikoak.**

1.- Otsailaren 27ko 3/1998 Legea indarrean jarri aurretik kutsatutako lurzoruak oneratzeko neurriak hartzeko betebeharra kutsadura hori eragin duen pertsona fisikoari edo juridikoari dagokio; pertsona bat baino gehiago direnean, betebeharrak horren erantzukizuna era solidarioan hartuko dute. Horien ordezt, betebeharrak hori lurzoruen jabeena eta edukitzaileena izango da, hurrenkera horretan.

2.- Otsailaren 27ko 3/1998 Legea indarrean jarri ostean kutsatutako edo eraldatutako lurzoruak oneratzeko neurriak hartzeko betebeharra lurzoruaren kutsadura edo eraldaketa hori eragin duen pertsona fisikoari edo juridikoari dagokio; pertsona bat baino gehiago direnean, betebeharrak horren erantzukizuna era solidarioan hartuko dute. Horien ordezt, betebeharrak hori lurzoruen jabeena eta edukitzaileena izango da, hurrenkera horretan.

3.- Hala ere, kutsatutako edo eraldatutako lurzoruak oneratzeko neurriak hartzeko betebeharra ezarri ahal izango dio ingurumen-organoak lurzoruaren kalitatearen adierazpen-prozedura hastea eragin duen ekintza sustatzen duen pertsonari, baldin eta neurriak hartzeko beharra lurzoruari emango zaion erabilera berriaren berezko funtzioei zor bazeaie. Betebeharrak hori era solidarioan ere ezarri ahal izango zaie: kutsadura hori eragin duten pertsona fisikoari edo juridikoari eta lurzoruaren kalitatearen adierazpen-prozedura hastea eragin duen ekintza sustatzen duen pertsonari.

4.- 1. eta 2. zenbakietan xedatzen den bezala kutsatutzat jotako lurzoru bat oneratzeko neurriak hartu behar dituen salbuetsi egin ahal izango du ingurumen-organoak neurriok hartzearen kostuak ordaintzeko

eginkizunetik, baldin eta betebeharrak hori duenak frogatzen badu ez dela hutsegiterik edo zabarkeriarik egon eta hauetakoren bat izan dela kutsaduraren eragile:

a) Organo eskudunak berariaz baimendutako botatze edo gertakari bat, baldin eta dena delako botatzearen edo gertakariaren egunean indarrean zegoen araudiarekin bat etorritik ezarritako baldintzen arabera izan bada.

b) Botatze edo jardura bat, edo jardura batean produktu bat erabiltzeko edozein modu, baldin eta frogatzen bada botatze edo jardura hori egin zen uneko ezagutza zientifiko eta teknikoaren egoeraren arabera lurzorurako kaltegarritzat hartzerik ez zegoela botatze, jardura edo erabilera-modu hori.

5.- Aurreko zenbakian jasotako kasuan, eta betiere lurzoruak une horretan duen erabilerarako kutsatutzat jo denean, ingurumen-organoak bere gain hartu ahal izango du oneratzeko neurrien kostua.

6.- Kutsatutako eta eraldatutako lurzoruak oneratzeko neurriak hartzeko, elkarren artean lankidetzahitzarmenak izenpetu ditzakete neurriok hartu behar dituztenek eta herri-administrazioek, laguntza publikoak ematea barne dela, honako konpromiso honekin: lurzoruak oneratu ondoren lurzoruok lortutako gainbalioetatik, oneratzea finantzatu duen herri-administrazioari itzuliko zaiola berak jarritako kopurua, lege honetako 54. artikuluan ezarritako moduan.

Halaber, borondatezko akordioak izenpetu ahal izango dira, kutsatutako eta eraldatutako lurzoruak oneratzeko neurriak hartzeko, neurri horiek hartzeko betebeharrak duten pertsona fisikoak eta juridikoak artean, lege honetan xedatutakoaren arabera.

Akordio horiek izenpetzeak ez du salbuetsiko bere erantzukizunetik lurzoruaren kutsadura edo eraldaketa eragin duena, edo, hala dagokionean, jabea, edukitzailea edo ekintzaren sustatzailea.

7.- Behartuta dauden pertsona fisikoak edo juridikoak ez badituzte oneratzeko neurriak hartzen autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak ezarritako epeetan, gehienez ondoz ondoko hertsatzeko bost isun jartzea erabaki ahal izango du ingurumen-organoak, eta horietako bakoitza hartu beharreko neurriek guztira duten kostuaren % 10ekoa izango da gehienez. Horretaz gain, betearazte subsidiarioa behartuaren kontura izatea ere erabaki ahal izango du, hondakinen eta kutsatutako lurzoruen uztailaren 28ko 22/2011 Legean ezarritakoa betetzeari utzi gabe eta ingurumenaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera jarri beharreko zigorrak alde batera utzi gabe.

8.- Lege honen ondorio diren diru-betebeharren erantzule solidarioak edo subsidiarioak izango dira ingurumen-erantzukizunaren urriaren 24ko 26/2007 Legearen 13. artikuluan jasotzen diren subjektuak, artikulua horrek ezartzen duen bezala.

## **Bigarren atala: Lurzoruak oneratu direla egiaztatzeko prozedurak**

### **47. artikulua.- Kutsatutako eta eraldatutako lurzoruak oneratu direla egiaztatzea.**

Kutsatutako edo eraldatutako lurzoruak oneratzeko neurriak hartzen dituztenek txosten bat aurkeztu behar diote ingurumen-organoari. Txosten hori lurzoruak ikertzeko eta oneratzeko baimendutako entitate batek landuko du, eta gutxienez eduki hau izango du txostenak:

a) Ezarritako neurrien deskribapen xehatua.

b) Oneratzeko prozesua ezarri zaien materialen karakterizazioaren emaitzak. Materialen eta energiaren azken balantzea.

c) Oneratzeak ingurumenean dituen ondorioak detektatu eta kontrolatzeko neurrien emaitzak.

d) Oneratzearen eraginkortasuna, behar izanez gero lurzoruaren azken egoeraren ikerketaren bidez egiaztatuta. Zeregin horiek baimendutako entitate batek egin beharko ditu, eta ez da izango neurriak diseinatu, gainbegiratu eta betearazi dituen edo dituzten entitateetako bat ere.

### **48. artikulua.- Kutsatutako edo eraldatutako lurzoru bat oneratzearen ondorioak.**

1.- Kutsatutzat edo eraldatutzat jotako lurzoru bat oneratu dela autonomia-erkidegoko ingurumen-organoan egiaztatu ondoren, organo horrek ebazpen bat emango du, gehienez 3 hilabeteko epean, pertsona interesdunei 15 eguneko entzunaldia eskaini ondoren.

2.- Oneratzea egiaztatzen duen adierazpenak, gutxienez, alderdi hauek jasoko ditu:

- a) Oneratutako lurzoruaren identifikazioa eta mugak.
- b) Oneratzeko ardua izan duenaren identifikazioa.
- c) Oneratzearen berariazko datuak, gauzatutako oneratze-ekintzak, oneratzea zein denboralditan egin den eta kaltetutako ingurune guztietako hondar-kontzentrazioak.
- d) Oneratzeko neurriak kutsatutzat jotako lurzoru batean hartu direnean, lurzoruak kutsatua izateari utzi egin diola adieraziko da ebazpenean.
- e) Oneratzeko neurriak eraldatutzat jotako lurzoru batean hartu direnean, oneratu egin dela egiaztatuko du ebazpenak, eta, hala badagokio, lurzoruak eraldatua izateari utzi egin diola adieraziko da ebazpenean.
- f) Beharrezkoa bada, hartu behar diren prebentziozko, babesteko eta kontrolatu eta segimendua egiteko neurriak, eta horretara behartutako pertsona fisikoak edo juridikoak nortzuk izan diren eta neurriok hartzeko epeak zein izan diren.
- g) Ebazpenaren oinarri den motibazio juridikoa eta teknikoa.
- h) Arau honetan xedatutakoaren arabera ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa.

3.- Lege honetako 52. artikuluan aipatutako Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio-erregistroan inskribatuko dira ebazpen horiek, eta euskarri izan diren agiriak bertan jasota geldituko dira.

4.- Kutsatutzat edo eraldatutzat jotako lurzoruak oneratu egin dela egiaztatu ondoren, ingurumen-organoak Jabetza Erregistroko bazterreko oharra ezeztatzeko eskabidea egingo du.

#### **49. artikulua.- Herri-onura.**

Kutsatutzat jotako lurzoruak oneratzea herri-onurakotzat jotzen da desjabetze-ondorioetarako.

## **VII. KAPITULUA**

### **LURZORUEN INGURUKO POLITIKAREN TRESNAK**

#### **50. artikulua.- Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen zerrenda.**

Lege honetan ezarritako betebeharrak betetzeko, autonomia-erkidegoko Jaurlaritzak, ingurumen-organoak proposatuta, lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen zerrenda bat onartuko du, eta eguneratu egingo du aldian-aldian.

Dena den, lege honetan jasotako betebeharrak lurzoru batean lurzoru kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat egoteari zor zaizkio, eta ez zerrenda horretan egoteari. Zerrenda hori informazio-iturri bat besterik ez da.

#### **51. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru Kutsatuen Plana.**

1.- Autonomia-erkidegoko Jaurlaritzak, ingurumen-organoak proposatuta, Lurzoru Kutsatuen Plana onartuko du, kutsatutako lurzoruen gaian jarduteko jarraibideak ezartzeko, lege honetako irizpideekin bat etorritik.

2.- Lurzoru Kutsatuen Planean zehaztuko dira jarraibide estrategikoen garapena, plana indarrean izango den aldian egin beharreko jarduerak eta plana bera gauzatzeko tresna egokiak.

Plan horretan, era berean, hurrengo artikuluan azaltzen den Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio-erregistroan jasotako datuak kontuan hartuta jarduteko lehentasunen zerrenda finkatuko da, kutsadurak ingurumenerako eta pertsonen osasunerako dakarren arriskua aintzat hartuta.

3.- Plana indarrean dagoen aldia amaituta, hura aldatzea edo egokitzea komeni den aztertuko du ingurumen-organoak, eta, nolanahi ere, hartutako erabakiaren berri emango dio autonomia-erkidegoko Jaurlaritzari.

## **52. artikulua.- Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio-erregistroa.**

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio-erregistroaren xedea da: lurzoru babestearen gaian segurtasun juridikoa eta informazio-eskubidea bermatzea.

2.- Lurzoruaren kalitatearen arloko prozedurak ezartzean lortzen den informazio guztia jasoko du Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio-erregistroak.

3.- Autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak ziurtagiriak egingo ditu erregistroan jasotako puntuez, ingurumen-gaietan informazioa eskuratzeko eskubidearen gaineko legerian finkatutako moduan eskatzen bazaizkio, datu pertsonalak babestearen gaineko legerian xedatutakoa alde batera utzi gabe.

## **53. artikulua.- Lurzoruak ikertzeko eta oneratzeko baimendutako entitateak.**

1.- Baimena nahitaezko baldintza izango da, honako hauek egin ahal izateko: miaketazko ikerketa, ikerketa xehea eta lurzoruaren kalitatearen azken egoeraren ikerketa diseinatu eta gauzatu; lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpenak lortzeko lurzoruaren egoeraren txostenak landu; oneratzeko neurriak diseinatu, gainbegiratu eta, hala badagokio, hartu; gaika hondeatzeko planak landu eta gainbegiratu; kontrol- eta segimendu-neurriak diseinatu eta hartu; prebentziozko eta babesteko neurriak diseinatu eta nola hartzen diren gainbegiratu. Era berean, nahitaezkoa izango da baimena, ingurumen-organoak lege honen arabera bere esku dituen eginkizunetan administrazioarekin elkarlanean aritzeko.

2.- Autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak baimenduko ditu hori eskatzen duten entitateak, beharrezko baldintzen eta arauz finkatzen den prozeduraren arabera. Prozedura horretan, alderdi hauek arautuko dira:

– Eskatutako eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren antolaketa, instalazioak, langileak eta tresneria edukitzea.

– Berme bat eratzea, sor litekeen erantzukizunerako.

– Ebaluatu eta aztertu beharreko enpresekin leudekeen bateraezintasun komertzialak zehaztea.

– Langileek beharrezko lanbide-prestakuntza izatea, beren eginkizunak betetzeko.

– Baimenaren eskaera eta prozedura.

– Baimentzeko baldintzak mantentzea.

– Baimendutako entitateen erregistroa.

## **54. artikulua.- Diru-laguntzak.**

1.- Lege honetan xedatutako eginbeharrak betetzeko, pizgarri gisa, diru-laguntzak eta mailegu pribilegiatuak eman ahal izango dira, eta onura fiskalak ezarri. Pizgarri horiek ezingo zaizkio eman lurzoru kutsatu edo eraldatu duenari, 46. artikuluan xedatutako kasuetan izan ezik.

2.- Nolanahi ere, eginbehar horiek, osorik zein zati batean, finantzaketa publikoaz baliatuz betetzen badira, alde zurretik berme bat eratu beharko da laguntzak jaso ahal izateko. Berme horren helburua honako hau ziurtatzea da: eginbeharrok betetzean lurzoruak lortutako gainbalioetatik, oneratzeko finantzatu duen herri-administrazioari itzuliko zaiola diru-laguntza gisa emandako kopurua.

## **55. artikulua.- Finantzaketa publikoa.**

Lege honetan ezarritako jarduerak finantzatzeko, autonomia-erkidegoko administrazioak baliabide hauek erabiliko ditu: Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako izendatutako zuzkidurak, estatuaren eta Europar Batasunaren ekarpenak eta aurrekontu-araubidearen gaian indarrean dagoen legeriaren arabera lege hau aplikatzeko jar daitezkeen gainerako baliabideak.

## **56. artikulua.- Ikuskaritza eta zaintza.**

1.- Ingurumen-organoaren ardura izango da EAEko lurzorua babesteko zaintza, ikuskaritza eta kontrola gauzatzea.

2.- Zaindu, ikuskatu eta kontrolatzeko lan horiek zuzenean ingurumen-organoak egin ahal izango ditu, bere kabuz edo Ihobe sozietate publikoaren bitartez; edo lege honen 53. artikuluan aipatzen diren baimendutako entitateen bidez egin ahal izango dira.

Zaindu, ikuskatu eta kontrolatzeko lanei lehentasuna emango zaie, edozelan ere, kutsatutako edo eraldatutako lurzoruak oneratzeko neurriak hartu diren tokietako lurzoruetan eta eraldatutako lurzoruak mugitzea dakarten ekintzetan.

3.- Ikuskatze-lanak egiten dituzten ingurumen-organoko langileak, eginkizun hori betetzean, agintaritzaren agente izango dira.

4.- Agintaritza eskudunarekin eta hark baimendutako entitateekin elkarlanean aritzera behartuta daude: lurzorua kutsa dezaketen jardueren edo instalazioen titularrak, jarduera edo instalazio horiek dauden edo egon diren lurzoruen edukizailleak edo jabeak eta jarduera edo instalazio horien ondorioak jasan dituzten lurzoruen edukizailleak edo jabeak. Horiek guztiek aukera emango dute azterketak, kontrolak, laginketak eta informazio-bilketak egiteko edo lege honetan eskatzen den beste edozein ekintza egiteko.

## **VIII. KAPITULUA**

### **LURZORUAREN KUTSADURA EKIDIN ETA ZUZENTZEAREN ARLOKO TASAK**

## **57. artikulua.- Zergapeko egitatea.**

Tasa hori ezartzea eragiten duen zergapeko egitatea da lurzoruen kutsadura ekidin eta zuzentzearen arloan autonomia-erkidegoko administrazio orokorrak zerbitzuak ematea. Zehazki, ekintza hauek dira zergapeko egitate:

1. Subjektu pasiboak lurzoruen kalitatearen adierazpen-prozedura hastea eskatuta, ingurumen-organoak honako erabaki hauek ematea:

- a) lurzoruen kalitatearen ikerketak balioesteko txostenak
- b) hondeaketa baimentzeko ebazpenak
- c) lurzoruen kalitatearen adierazpenak

2. Subjektu pasiboak eskatuta, lurzoruen erabilera-gaitasunaren adierazpena ematea.

3. Subjektu pasiboak eskatuta, lurzoruen kalitatea ikertzeko eta oneratzeko entitate gisa baimentzea.

4. Subjektu pasiboak eskatuta, lurzoruen kalitatea ikertzeko eta oneratzeko entitate izateko emandako baimenak aldatzeko eskaerak bideratzea.

5. Subjektu pasiboak eskatuta, Lurzoruen Kalitatearen Administrazio-erregistroan egindako kontsulten inguruan erabakiak ematea.

6. Subjektu pasiboak eskatuta, lurzoruen kalitatearen arloko adierazpen-prozeduretan baldintza teknikoaren eta juridikoaren gainean egindako aurretiazko kontsulten inguruan erabakiak ematea.

## **58. artikulua.- Subjektu pasiboa.**

1. Lurzoruaren kalitatearen adierazpen-prozeduran erabakiak emateko modalitaterako, tasa horren subjektu pasiboak dira lurzoruaren kalitatearen adierazpen-prozedura hasia eskatu duten pertsona fisikoak edo juridikoak.
2. Lurzoruaren erabilera-gaitasunaren prozeduraren modalitaterako, tasa horren subjektu pasiboak dira erabilera-gaitasunaren adierazpena eskatu duten pertsona fisikoak edo juridikoak.
3. Lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta oneratzeko entitate gisa baimentzeari loturiko izapideen modalitaterako, tasa horren subjektu pasiboak dira baimen hori edo horren aldaketa eskatu duten pertsona juridikoak.
4. Kontsulta-modalitateetarako, tasa horren subjektu pasiboak dira kontsulta hori egin duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

#### **59. artikulua.- Sortzapena.**

Tasa sorraraziko da, hauek aurkezten direnean: lurzoruaren erabilera-gaitasunaren eskaera, kontsulta eta lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta oneratzeko entitate gisa baimentzeko eskaera edo baimena aldatzekoa.

Lurzoruaren kalitatearen adierazpen-prozedurako erabakien modalitaterako, tasa sorraraziko da, ingurumen-organoak lurzoruaren kalitatearen adierazpena ematen duenean eta prozedura amaitzen denean.

#### **60. artikulua.- Kuota.**

1. Tasa horren kuota honako tarifaren arabera eskatuko da (euroak):

1. Lurzoruaren kalitatearen adierazpen-prozedurako erabakien modalitaterako:
  - a) lurzoruaren kalitatearen ikerketak balioesteko txostenak ematea: 150,00 €
  - b) hondeaketa baimentzeko ebazpenak ematea: 200,00 €
  - c) lurzoruaren kalitatearen adierazpenak ematea: 200,00 €
2. Lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpenaren modalitaterako: 150,00 €
3. Lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta oneratzeko entitatea baimentzeko modalitaterako: 400,00 €
4. Lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta oneratzeko entitatearen baimena aldatzeko modalitaterako: 100,00 €
5. Administrazio-erregistroko kontsultaren modalitaterako: 50,00 €
6. Aurretiazko kontsultaren modalitaterako: 100, 00 €

2. Lurzoruaren kalitatearen adierazpen-prozeduran erabakiak emateko modalitaterako tasa, prozedura berean ematen diren erabakien kopuruaren arabera kalkulatu da.

#### **61. artikulua.- Hobariak.**

Lurzoruaren kalitatearen arloko adierazpenaren modalitateetarako, hobari hauek aplikatuko dira:

- a) kuotaren % 10, enpresa txikien eta ertainen kasuan, 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Batzordearen Gomendioko definizioaren arabera
- b) kuotaren % 20, mikroenpresen kasuan, 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Batzordearen Gomendioko definizioaren arabera
- c) kuotaren % 50, subjektu pasiboek EMAS ziurtagiria daukatela egiaztatzen badute

## **62. artikulua.- Autokitapenak.**

Zergapeko egitatea 57. artikuluko 1. zenbakian jasotakoa denean izan ezik, tasa subjektu pasiboek berek kitatuko dute, eskaera egiten duten unean. Aurreko artikuluan araututako hobariak aplikatu behar badira, aplikatuko den hobaria arrazoitzen duten kasuak betetzen direla dioen erantzukizuneko adierazpena aurkeztu beharko da.

Lurzoruaren kalitatearen adierazpen-prozedurako erabakien kasuan (57. artikuluko 1. zenbakia), subjektu pasiboak berak kitatuko du tasa, prozedura amaitzen duen ebazpena ematen denean. Ebazpen horretan, tasa hori zenbatekoa den zehaztuko du ingurumenaren arloko eskumenak dituen organoak.

## **IX. KAPITULUA**

### **ZEHATZEKO ARAUBIDEA**

## **63. artikulua.- Arau-haustekak.**

Lege honen arabera arau-haustekak hurrengo artikuluetan ezarritakoak izango dira, eta oso larri, larri eta arin gisa sailkatuko dira.

## **64. artikulua.- Arau-hauste oso larriak.**

1.- Ondorengo gertakariak arau-hauste oso larriak dira, pertsonen, beren ondasunei edo ingurumenari arrisku edo kalte larriak eragiten dizkietenean:

- a) Lurzoruan objektuak, produktuak, hondakinak edo gaiak kontrolik gabe uztea, isurtzea edo ezabatzea.
- b) Kautela-, prebentzio-, babes- edo kontrol- eta segimendu-neurriak ez hartzea edo neurri horiek hartzeko eragozpenak jartzea.
- c) Kutsatutzat jotako lurzoruetan oneratzeko neurriak ez hartzea edo neurri horiek hartzeko eragozpenak jartzea.
- d) Lege honetan xedatutakoaren arabera nahitaezkoa izan arren, miaketazko ikerketak, ikerketa xeheak edo lurzoruaren azken egoeraren ikerketak ez egitea.
- e) Kutsatutzat jotako lurzoruetan, lurzorua oneratzeko neurriak hartu gabe, obrak edo jarduerak egitea edo lurzorua erabiltzea.
- f) Lurzoruaren kalitatearen adierazpena aldeztatik eduki gabe, obrak edo jarduerak egitea edo lurzorua erabiltzea, lege honetan xedatutakoaren arabera adierazpen hori beharrezkoa izan arren.
- g) Hondeatzeko baimena aldeztatik eduki gabe, lur-mugimenduak egitea, lege honetan xedatutakoaren arabera adierazpen hori beharrezkoa izan arren.
- h) Lege honetan araututako prozeduretan ingurumen-organoak emandako ebazpenetan jarritako baldintzak ez betetzea.
- i) Oneratzeko neurriak hartzea behartuta dauden pertsona fisikoen edo juridikoen eta herri-administrazioen artean izenpetutako lankidetzak-hitzarmenen ondorio diren eginbeharrak ez betetzea.
- j) Baimendutako entitateei eskatzen zaizkien baldintzak ez betetzea eta entitate horiek lege honetan xedatutakoaren eta arau ezarritakoaren aurkako jarduerak egitea.
- k) Lurzoruaren kalitatea ezagutzeko eta kontrolatzeko edozein tresnatan lortutako datuak ezkatatu edo aldatzea.
- l) Kutsadura-zantzuak detektatu direla ingurumen-organoari jakinarazteko eginbeharra ez betetzea.

2.- Nolanahi ere, pertsonen, beren ondasunen edo ingurumenari arrisku edo kalte larriak eragiten zaizkiela ulertzen da, arriskuen analisian arrisku onartezin bat dagoela ondorioztatzen denean.

#### **65. artikulua.- Arau-hauste larriak.**

1.- Arau-hauste larriak dira aurreko artikuluan aipatutakoak, pertsonen, beren ondasunen edo ingurumenari arrisku edo kalte larriak eragiten ez dizkietenean.

2.- Arau-hauste larriak dira, halaber, hauek:

a) Eraldatutzat jotako lurzoruetan oneratzeko neurririk ez hartzea edo neurri horiek hartzeko eragozpenak jartzea, neurriok hartzea aginduta egon arren.

b) Eraldatutzat jotako lurzoruetan, lurzoru oneratzeko neurririk hartu gabe, obrak edo jarduerak egitea edo lurzoru erabiltzea, neurriok hartzea aginduta egon arren.

c) Lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpena aldeztu aurretik eduki gabe, lurzoru horretan obrak edo jarduerak egitea edo lurzoru erabiltzea, lege honetan xedatutakoaren arabera adierazpen hori beharrezkoa izan arren.

d) Datuak isilean gordetzea edo emateari uko egitea, lege honek edo legea garatzen duen araudiak hori eskatzen duenean; edo agintaritza eskudunak datu horiek eskatu dizkienean: bai lurzoru kutsa dezaketen jardueren edo instalazioen titularrak edo arduradunak diren pertsona fisikoei edo juridikoei edo bai jarduera edo instalazio horiek dauden edo egon diren lurzoruaren edukizailerak edo jabeak direnei.

e) Administrazioaren ikuskaritza-lanari oztopo aktiboa zein pasiboa jartzea.

f) 26. artikuluan xedatutako ekintzak egitea, 41. artikuluan ezarritako eginbeharrak bete gabe, edo, ingurumen-organoaren erabakia nahitaezkoa denean, haren berariazko edo isiltasunezko erabakirik gabe.

3.- Nolanahi ere, arau-hauste larriak dira aurreko letretan adierazitako ekintzak, arriskuen garrantzia balioesteko arriskuen analisian egin behar denean.

#### **66. artikulua.- Arau-hauste arinak.**

1.- Arau-hauste arinak dira aurreko artikuluan jasotako arau-hausteak, baldin eta beren zenbatekoa edo garrantzia txikia delako larritzat sailkatzea merezi ez badu.

2.- Era berean, arau-hauste arina da, baldin eta arau-hauste larritzat edo oso larritzat jo ez bada, xedapen hauetan ezarritakoa ez betetzea: lege hau eta legea garatzen duten arauak, lurzoruaren kalitatearen edo lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpena edo lege honetako prozeduretan ingurumen-organoak emandako beste edozein ebazpen.

#### **67. artikulua.- Arau-hausteak preskribatzea.**

Lege honek aipatzen dituen arau-hausteen preskripzioa ondorengo epeetan gertatuko da, betiere arau-haustea egin zen egunetik edo, kaltea berehalakoa izan ez bada, ingurumen-kaltea detektatzen denetik kontatzen hasita:

– Urtebetera, arau-hausteak arinak direnean.

– Hiru urtera, arau-hausteak larriak direnean.

– Bost urtera, arau-hausteak oso larriak direnean.

#### **68. artikulua.- Mailakatzeta.**



1.- Lege honetan aipatutako arau-hausteengatik zehapenak mailakatu egingo dira, eta, horretarako, kontuan hartuko dira: eragindako arriskua edo kaltea, arau-hausle izan den pertsona fisikoak edo juridikoak lortutako etekina, nahita egin izana eta berrerortzea, eta gorabehera aringarriak edo astungarriak.

2.- Gorabehera astungarritzat eta aringarritzat joko dira Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorreko 113. artikuluan ezarritakoetatik kasu bakoitzean aplikatzekoak direnak.

#### **69. artikulua.- Zehapenak.**

Lege honetan xedatutako arau-hauste administratiboak egiteagatik, ondoko zehapenak ezarri ahal izango dira:

a) Arau-hauste arinengatik:

– 300 eurotik 24.000 eurorainoko isuna.

– Ohartarazpena.

b) Arau-hauste larriengatik:

– 24.001 eurotik 240.000 eurorainoko isuna.

– Instalazio osoa edo instalazioen zati bat aldi baterako ixtea: gehienez, hiru urterako.

– Jarduerak aldi baterako geraraztea: gehienez, hiru urterako.

– Baimendutako entitate izaera aldi baterako galtzea: gehienez, hiru urterako.

c) Arau-hauste oso larriengatik:

– 240.001 eurotik 1.500.000 eurorainoko isuna.

– Instalazio osoa edo instalazioen zati bat behin betiko ixtea.

– Jarduerak behin betiko geraraztea.

– Instalazioak aldi baterako ixtea: gehienez, sei urterako.

– Jarduerak aldi baterako geraraztea: gehienez, sei urterako.

– Baimendutako entitate izaera aldi baterako galtzea: gehienez, sei urterako.

– Baimendutako entitate izaera behin betiko galtzea.

#### **70. artikulua.- Ezohiko kasuetan kautelazko neurriak hartzea.**

Salbuespenez, eta zehapen-dosierra hasi aurretik, ondoko neurriak hartu ahal izango dituzte herri-administrazioek, eta lege honetan arau-hauste gisa tipifikatutako edozein gertakariren ustezko arduradunari ezarri ahal izango dizkiote neurriok, interesdunari entzun ondoren: obrak edo jarduerak bertan behera uztea, edo, ingurumeneko kaltea zabal ez dadin, zuzentzeko, segurtasunerako edo kontrolatzeko beste edozein neurri. Neurri horiek ez dute zehapen-izaerarik izango.

#### **71. artikulua.- Eskumenak.**

Ingurumenaren gaian Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailaren titularrari dagokio arau-hauste larrien eta arinen gaineko zehapena zehaztea, eta Jaurlaritzaren Kontseiluari arau-hauste oso larrien gainekoa.

#### **72. artikulua.- Zehapenak preskribatzea.**

Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapenak hiru urtera preskribatuko dira, arau-hauste larriengatikoak bi urtera, eta arau-hauste arinengatikoak urtebetera. Preskribatzeko epea zehapena ezartzeko erabili den administrazio-bideko ebazpena irmo egiten den egunaren biharamunetik hasiko da kontatzen.

### **73. artikulua.- Oneratzeko betebeharra.**

1. Zigorrek ezartzeari utzi gabe, araua hausten dutenak behartuta daude eragindako kalteak konpontzera, hondatutako ondasunak oneratzeko eta lehengo egoerara ekartzeko.
2. Araua hausten duenak aurreko zenbakian ezarritako eginbeharra betetzen ez duenean edo erabat betetzen ez duenean, hertsatzeko isunak ipini ahal izango zaizkio, eginbehar hori bete dezan.
3. Aurreko zenbakian aipatutako isunak ezarri baino lehen, agindutakoa borondatez betetzeko eskatuko zaio araua hausten duenari. Epe bat finkatuko da horretarako: egoera aztertuta erabakiko da zenbat iraungo duen, eta borondatez betetzeko behar adinakoa izango da.
4. Hertsatzeko isunak apartekoak izango dira, eta egin den arau-hausteagatik zigor gisa ipini diren edo ipin daitezkeen isunekin bateragarriak.
5. Kaltea elementuan bertan edo puntu geografikoan bertan konpondu ezin denean, baliokidea den konponketa bat agindu dezake organo eskudunak.
6. Administrazioak ezarritako zigorretatik lortzen diren funts ekonomikoak ingurumena hobetzeko neurrietara bideratu behar dira osorik.

### **74. artikulua.- Zehatzeko araubideko arauak.**

Kapitulu honetan xedatu ez direnetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/98 Legean jasotako arauak aplikatuko dira.

### **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

**Lehenena.-** Jaurlaritzari dagokio diru-zehapenen zenbatekoa eguneratzea, urteko kontsumo-prezioen indizearen arabera.

**Lehenena.-** Ahalmena ematen zaio Jaurlaritzari, lege honetako eranskinak aldatzeko eta III. eranskinean sartu gabeko gai kutsatzaileentzat ebaluazioko balio adierazle berriak onartzeko.

### **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

**Lehenena.-** Otsailaren 4ko 1/2005 Legea indarrean sartu aurretik lurzorua kalitatearen gainean egindako ikerketen inguruan autonomia-erkidegoko ingurumen-organismoak emandako ebazpenak eta ziurtagiriak lurzorua kalitatearen adierazpentzat joko dira.

**Bigarrenena.-** Lege hau indarrean sartu aurretik lurzorua kalitatearen adierazpen-prozedura bezala hasitako prozedurak, lege honen arabera lurzorua erabilera-gaitasunaren adierazpen-prozedura gisa bideratu behar diren kasuenak badira, legeko V. kapituluko hirugarren atalean ezarritakoaren arabera bideratu ahal izango dira, prozedura hastea eskatu duenaren eskariz, hasitako prozeduraren behin betiko ebazpena eman ez bada.

**Hirugarrenena.-** Araubidea eguneratzen den bitartean, lurzoru ikertzeko eta oneratzeko entitateak baimentzeko eta lurzorua kalitatearen ikerketen edukia eta zehaztasun-maila finkatzeko, xedapen honi jarraituko zaio: urriaren 10eko 199/2006 Dekretua, lurzorua kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatze sistema ezartzen duena, eta erakunde horiek lurzorua kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten dituen.

Aurreko xedapenean aipatzen den entitateak baimentzeko araubidea eguneratzen den bitartean, urriaren 10eko 199/2006 Dekretuaren 3. artikuluko 1.a letran xedatutako ekintzak egiteko baimenduta dauden

entitateek hondeaketa-planak eta egoeraren txostenak egin ahal izango dituzte, arau honetan xedatutako lurzoruen erabilera-gaitasunaren adierazpen-prozeduretan.

Orobat, urriaren 10eko 199/2006 Dekretuaren 3. artikuluko 1.c letran xedatutako ekintzak egiteko baimenduta dauden entitateek aipatutako hondeaketa-planak gainbegiratzeko lanak egin ahal izango dituzte.

**Laugarrena.-** Eguneratzen den bitartean, lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen zerrenda, irailaren 30eko 165/2008 Dekretuaren bidez onartutakoa da.

**Bosgarrena.-** Lurzoruaren egoeraren txostenaren edukia onartzen den bitartean, txosten horiek lantzeko, Ingurumen Sailburuordetzak onartuko duen “Lurzoruaren egoeraren atariko txostenak lantzeko gida”n xedatutakoari lotuko zaio. Herritarren eskura jarriko da, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren web orrian.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten dira: lurzoru ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea eta lege honetan ezarritakoaren aurka doan xedapen oro.

## AZKEN XEDAPENA

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

## I. ERANSKINA

### LURZORUA KUTSA DEZAKETEN JARDUERAK ETA INSTALAZIOAK

93ko EJSNa - 1.

berrikuspena

Deskribapena

(1)

|        |                                                                                                  |
|--------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 10.1   | Antrazita eta harrikatza ateratzea eta aglomeratzea                                              |
| 10.2   | Lignito nabarra ateratzea eta aglomeratzea                                                       |
| 11.1   | Petrolio gordina eta gas naturala ateratzea                                                      |
| 11.20  | Petrolio- eta gas-ustiapenekin loturiko zerbitzuetako jarduerak, prospekzio-jarduerak izan ezik  |
| 13.1   | Burdina-mineralak ateratzea                                                                      |
| 13.20  | Burdinazkoak ez diren metalezko mineralak ateratzea, uraniozko eta toriozko mineralak izan ezik  |
| 14.3   | Ongarriak eta kimika-produktuak egiteko mineralak ateratzea                                      |
| 14.5   | Metalezkoak eta energiazkoak ez diren bestelako mineralak ateratzea                              |
| 15.40  | Koipeak eta olioak egitea (landareenak eta animalienak)                                          |
| 15.61  | Errotaritzako produktuak egitea                                                                  |
| 17.3   | Ehunei akabera ematea                                                                            |
| 17.542 | Ehun inpregnatuak, gogortuak edo materia plastikoz estaliak egitea                               |
| 18.3   | Larruak prestatzea eta tindatzea; larruzko gaiak egitea                                          |
| 19.10  | Larrua prestatzea, ontzea eta akabera ematea                                                     |
| 20.10  | Zura zerratzea eta marruskatzea; zura industrian prestatzea                                      |
| 20.20  | Txapak, taulak, kontratxapatuak, listoiak, aglomeratu-partikulak, zuntzak eta panel-aulak egitea |
| 21.1   | Paper-orea, papera eta kartoia egitea                                                            |

|        |                                                                                                                                                     |
|--------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
